

KarKara

HA

71. zenbakia

Orio eta Aiako aldizkaria

1998ko maiatza



EURIPEAN KANTARI

PUBLIZITATEA EGITEKO MODUAK ETA MODUAK

Bada enpresa bat, Durangon kokatuta, bese guziengandik gailentzen dena, bere publizitatea kulturalen, euskaran, kirolean eta abareko kontaezin ahala ekintzatan agertzen delako BAQUE etxeak ni gaua. Emilio Baqué Delás jaunarekin gaude (Cafés Baqué enpresako Zuzendaria)

Galderra: Emilio, euskararen aldeko topaketa eta bilgune handi guztietan ikasten zaituztet -Kilometron, Ibilbidea, Herri Urra... - Zergatik hori? Euskara maite duzelako ala errestagarritasunagatik?

Emilio: Egu esateko, hasiera hilean laguntza bat ematea beste asimorik ez genuen, euskarari diru laguntza ematea. Baina, honelako hainbeste eta hainbeste ekintzatan egon ondoren, azkenetako, sinpatiagatik edo esker onez, errestagarri ere badela uste dugu.

G. Zentzu honetan ze nolako beste ardurak dituzue?

E. Euskarazko argitalpenen literatura sarietan eskubartuan dugu, IRUNA Saria. Urtero Durangoaldeko Antzezki saria eman ohi dugu, abesbatzen hainbat disko lagundu eta argitaratu ditugu eta Euskal Herriko Historiari buruzko liburusk ere ugitzamain izan ditugu.

G. Bai telebistan eta bai kalean, BAQUE kamiseta eta txandsl ugari ikusi ohi dugu...

E. Hala da. Saskibaloian, Txirrindularitzan eta Pilotan batez ere. Orain dela 25, 20 eta 12 urte hasi gisen, hilean eta bestean. Atletismean, Arraunean eta beste kirol batzuetan ere ariten gara geare iñaki gietsoz jartzten: baina, hori bai, bai zaletasimezko eta oinarriko kirola da guk bultzatzen duguna.

G. Saltzeko garaian Euskara asko erabiltzen duzu. Errentagarrua al da?

E. Beti ez ditugo gauzak errentagurritasun hutsagatik egiten. Monibazio ugari diri gehien bat euskal giroan ibiltzen eta mezuak euskaran ematera bultzatzeko gaitzen. Azkenerako denuk du bere ordeña, nahiz eta iristen zertxobait denbora gehiago behar izan.

Cafés Baqué gaur gure aldizkarian azaltzea, bese enpresa bat zuen pizgarri izatea nahi gomke.

Zabaldu bedi credua.

LARRAZTE OROGILOZA



Emilio Baqué,
Cafés BAQUÉ's
Zuzendaria



Arralde

Sagardotegi-jatetxea
Errotaetxea baserrian

- Jateko eta edateko, denetik
- Eguneroako menuak
- 300 lagunentzako lekuak
- Aparkaleku zabala
- Bataio, eztei eta komunioetarako leku aproposa

Ubegun Auzoa Aia-Orio ☎ 89 01 25

AZKUE

Itsas-gaiak

Eusko Gudari, 12
083 25 55

AHOLKULARITZA
Fiskala, Laborala, Kontablea

ASEGURU ARTEKARIA



Eugenio Garmendia

Ibai Ondo, 1 Tfnoa: 83 44 66 - 83 49 17

Egin ezazu zure publizitatea

KarKara

83 15 27

aldizkarian

Kultur etxea
20810 ORIO
Tel. 943 83 15 27

Posta elektronikoa:
karkara@topagunea.jaizki.com

Lege gordailua
55 346/90

ISSN
1132-1105

Tirada
1.300 ale

Zuzendaria
Ainara Peña

Erredakzio taldea
Miren Etxeberria,
Iñaki Fernández,
Jakes Goikoetxea,
Ana G. de Txabarri,
Ana Iturain,
Iñaki Iturain,
Nere Manterola,
Ainara Peña,
Igor Salsamendi,
Javier Zabalaeta

Aiako erredakzioa
Bil Lasa

Publizitatea
Ainara Peña

Kolaboratzaileak
Oroitz Manterola, Euskal
Herritar Euskaraz, Igor
Salsamendi.

Argazkiak
Ana G. de Txabarri

Azken orrialdeko irudia
Laiariak
Jose Ortiz Etxague

Banatzalea
Miguel Ángel Sanz

Inprimategia
Gertu Koop, E (Oñati)



Euskal Jauriaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

- | | |
|---|---|
| 4 | GUTUNAK |
| 5 | HERRIAN GALDEZKA |
| <i>Zer iruditzen zaizu 35 orduko lan astea ezartzea?</i> | |
| 6 | HERRIKO KONTUAK |
| 11 | KIROLAK |
| 14 | IRITZIA Igor Salsamendi |
| 15 | AIAKO KARKARA |
| ELKARRIZKETA Joxe Mari Lertxundi | |
| 19 | MAHAI INGURUA Kultur Etxea hizpide |
| 24 | DENETIK PIXKA BAT |
| <i>Euskaldun berriak. Juan Rekarte</i> | |
| <i>Musika kritika. Benito Lertxundi eta Orkestra Sinfonikoa</i> | |
| <i>Soziedadak. Balea</i> | |
| <i>Jaiotakoak, hildakoak eta ezkondutakoak</i> | |
| <i>Zorionak eta zoriotxarrak</i> | |
| <i>Orain dela 25 urte</i> | |
| <i>Nire honetan. BEA</i> | |
| <i>Kanpoan daudenak. Mertxe Manterola</i> | |
| 29 | KOLABORAZIOA Euskal Herrian Euskaraz |
| 30 | AZKENA |

1998KO PUBLIZTATE PREZIOAK

Modulo bat	1.500 PTA
Bi modulo	3.000 PTA
Hiru modulo	4.500 PTA
Lau modulo	6.000 PTA
Sei modulo	9.000 PTA
Orrialde erdia	13.500 PTA
Orrialde osoa	27.000 PTA

Prezio hauek zenbaki baterako
balio dute. Publizitatea urteko
zenbaki guztietan jarri nahi dutenei
% 10eko deskontua egingo diegu
prezio hauen gainean (urtean
hamar zenbaki argitaratzen
ditugu).



Gipuzkoako Diputazioak
diruz lagundutako aldizkaria



Orioko Udalak
diruz lagundutako aldizkaria

KarKara

Kultur etxea
20810 ORIO
Tel. 943 83 15 27

Posta elektronikoa:
karkara@topagunea.eialdi.com

Lege gordailua
55 346/90

ISSN
1132-1105

Tirada
1.300 ale

Zuzendaria
Ainara Peña

Erredakzio taldea
Minen Etxeberria,
Iñigo Fernández,
Jakes Goikoetxea,
Ana G. de Txabam,
Ana Iturain,
Iñaki Iturain,
Nere Manterola,
Ainara Peña,
Igor Sásmendi,
Javier Zabaleta

Alako erredakzioa
Edu Lasa

Publizitatea
Ainara Peña

Kolaboratzaileak
Oroitz Manterola, Euskal
Herriko Euskaraz, Igor
Sásmendi.

Argazkiak
Ana G. de Txabam

Azken orrialdeko irudia
'Laiarla'
Jose Ortiz Etxague

Banatzalea
Miguel Ángel Sanz

Inprimategia
Gertu Koop, E (Oñati)

- 4 GUTUNAK**
5 HERRIAN GALDEZKA
Zer iruditzen zaizu 35 orduko lan astea ezarizea?
6 HERRIKO KONTUAK
11 KIROLAK
14 IRITZIA Igor Sásmendi
15 AIAKO KARKARA
ELKARRIZKETA Joxe Mari Lertxundi
19 MAHAI INGURUA Kultur Etxea hizpide
24 DENETIK PIXKA BAT
Euskaldun berriak. Juan Rekarte
Musika kritika. Benito Lertxundi eta Orkestra Sinfonikoa
Soziedadak. Balea
Jaiotakoak, hildakoak eta ezkondutakoak
Zorionak eta zoriotxarrak
Orain dela 25 urte
Nire honetan. BEA
Kanpoan daudenak. Mertxe Manterola

- 29 KOLABORAZIOA** Euskal Herriko Euskaraz
30 AZKENA

1998KO PUBLIZITATE PREZIOAK

Modulo bat.....	1.500 PTA
Bi modulo	3.000 PTA
Hiru modulo	4.500 PTA
Lau modulo	6.000 PTA
Sei modulo	9.000 PTA
Orrialde erdia	13.500 PTA
Orrialde osoa	27.000 PTA

Prezio hauek zenbaki baterako
balio dute. Publizitatea urteko
zenbaki guztietan jarri nahi dutenei
% 10eko deskontua egingo diegu
prezio hauen gainean (urtean
hamar zenbaki argitaratzen
ditugu).



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako Diputazioak
diruz lagundutako aldizkaria



Orioko Udalak
diruz lagundutako aldizkaria

Zer iruditzen zaizu 35 orduko lan astea ezartzea?

Bai sindikatuak eta bai herritarak 35 orduko lan astea ezar dadin borrokatzen ari dira. Bain lege hori ezartzeak bestelako ondorio batzuk ere badakartz, eta hemxtarek hori buruz zer intzi duten jakin nahi izan dugu.

**IDOIA ELIZONDO**

37 urte

Oso ondo iruditzet zait 35 orduko lan astea jartzear hornela, onduak bariatzen direnean, dirua ere txanato egongo da, eta jende gehiagok lan egiteko ahal izango du.

Bestalde, ordu estraik sartzea ez zait ondo iruditzet, ez gure bateren eta orain ere. Lana batzeko da, eta et batzta lanerska.

**SANTOS URANGA**

37 urte

Ordu estraik sartzen ez izatea garantitutakoia iruditzen zait, zerbait lehukan sartzen dene ordu estraikoa lantegi bat edo bi kontratatu datzedetako.

Hala ere, 35 orduko lan astea sartzea ordu dago hornela langabezia guztioi egongo dira.

ANGEL SOLABERRIETA

53 urte

Soldatuek berdin jarraitzen badute, ados naga 35 orduko lan astearekin, baina ez bestela.

Bestalde, ordu estraik sartzearen liburu horrekin, leonsa sartuko ez baitu ondo, baina jendeak sartzen baditu, bestelako eresartu egin behar, ze, bestela, biziaren aurkera egiteko beste lanen bat aurkitu beharko zen.

**AINHOA LEUNDA**

18 urte

Dudark ez dago 35 orduko lan astea janz gero, gaur egin dagoen langaberria jasai egongo dela, baina, horrekin batera kontuan izan behar da lan onduak jasai gero soldatuek murriztu egin beharko direla. Beraz, proposamen horiek hiru alde onak dituen arren, alde batzak ere baditu.



Orioko Ogia



bai-ondo Supermerkatua

Telefonoa: 83 47 50



Telefonoa: 83 09 29



83 31 03





Euria gogotik egin zuen igandean, baina ez zuten atzera egin Topaketan parte hartu zuten kantariak.
Lapurdiako barnealdean dagoen Hiriburu herriko 'Leinua' otxotekosak dira horren lekuko.

Abesbatzen arteko I. Topaketa

Lehenengo aldia da abesbatzen arteko topaketa Orion egiten dela, baina ez omen da azkena izango; asmo hori dute, behintzat, Salatxokoek. Herriko talde askok lagundu die ekitaldi hau antolatzen, eta eskertu beharreko lagunza izan da: dudrik gabe.

Apirilaren 26an, igandea, abesbatzen arteko Orioko I. Topaketa izan zen. Salatxo abesbatzak antolatuta. Euskal Herriko sei abesbatza elkarri ziren, eta egun osoa iraun zuen jaialdia eskaini zituen. Goizeko 11:00etan plazan hasi eta abesbatza bakoitzak bere ibilbidea egin zuen kantari. 14:00etan, berriro ere

plazan elkartu ziren, denak batera Altzerrri jatetxera bazkaltzera joateko. Eguna bukatzeko, arratsaldeko 18:00etan, frontoian kantatu zuten guztiek.

European egin behar izan zuten goizeko lana kantariak: guardasola aterata edo aterpean jarrita kantatzeko. Penagarria izan zen eguraldiarena, jendea ere

ateraturu egin zelako, eta egun ederra izan zitekeena beltz eta bustia tokatu zelako.

Atpagarrria da, baita ere, Euskal Telebistako *Bertatik Bertara* programakoak, *Arrate Irratia* eta *Txingudi Telebiska*koak bertan izan zirela saioak grabatzen. Gipuzkoako Abesbatzen Elkarteko presidente, Joxe Mari Averdi, ere jaialdian izan zen.

SEI KORU ETA BERREHUNDIK GORA AHOTS

Salatxo gain, Euskal Herriko beste bost abesbatza etorri ziren: Portugaleteko Santa Maria, Laudioko Santa

Lizka, Hiriburu Otxote Leinua, Berako Abesbatza eta Elgoibarko Itxaropena Abesbatza.

Goizeko saioan, kalez kale ibili ziren kantuak kantart eta, jendeak inguratuta, bakotzak bere erreperitorioa eskaini zuen. Kanta alaiak eta oso ezagunak izan ziren, benetan giro gozoa eta bitxia sortuz european.

Arratsaldeko satoa oso differentia izan zen. Frontoi barruan jendea eseritzen den tokia hartu zuten kantariak, eta frontoiaren behelko aldea hurbildu ziren entzuleek. Publikoa oso gustura geratu zen kontzertuarekin.

Lau abesti kantatu


zituzten bakarka taldeek eta, ondoren, guztiek batera bi abesti: *Galizian argi hostian eta Txantori Piperrí*. Azken gorespena.

Topaketa honek baizuen beste helburnia, izan ere, Salatxok sozio berriak lortu nahi ditu. Horretarako, mahata jarrita zuten frontoiko atarian, nahi zutenek tzena emateko. Sozio izateagatik, emanaldietan, koruak entzuteko lekua gordetzen zaie edo, aurten Salatxokorokin Lisboako EXPOrako joateko aukera tzango dute, besteak beste.

Saloaren bukaeran orioigarri bana eman zitzaien koruei eta Agur Jatorrak kantatu zen.

ERRUSTA

Kriston
bokadillok!!



KoastA

Lasaitasuna eta giro ona

Bertsolarien finala Orion

Gipuzkoako Eskolar-teko XVIII. Bertsolari Txapelketaren finala Orioko frontetan izango da maiatzaren 29an, estinalarekin. Gipuzkoako Ikastolen Elkarteak antolatutako lehiaketa honetan lehen fasea eskola bakoitzak egingo duen hautaketa izango da. Bigarren fasean lau ikastolak jokatuko dira: Hernanin.

Getarian, Urretxun eta Oñatin. Eta, azkenik, Orioko finala. Bat-bateko saloez gain, bertsoperaetan ere lehiatuko dira eskoletako neska multilak.



Igandean gurasoak bertan izan ziren hamasketako ederra janet.

73 umek parte hartu zuen Txurrukako konbientzian

Apirilaren 24tik 26ra bitartean Txurrukako albergan, Oñatiak taldeak antolatuta izan zen konbientzian herriko 73 ume elkartu ziren, astebarua elkarrekin pasatzeko asmoz. Ume hauek 3. mailatik 7. mailara bitartekoak ziren 8. mailako neskamutilek ez batzuten izena eman.

Oñatikoan, arratsaldeko 18:00etan autobusa hartu eta igandeko 13:00ak arte egon ziren bertan. Gure belarrietara iritsi denez, bertara joan ziren umek oso ondo pasa zuten, baita baziren batzuk nahiko bilturriak, eta ostirala eta larunbat gauean, denak oheratu ondoren, parrandak egiten zituzten.

Igandeak, berriz, ume hauen gurasoak elorri ziren hamasketakoa egin eta umeekin batera jolas tera. Hamasketakoa gustura jan zuten arren, jolaseko kontu hori ez zitzaien gehiegiz gustatua eta, gutxi batzuk kenduta, besteek ez zuten parte hartu.

Oñatiak taldea aipatu dugunez, esan beharra dago balita ere, aurkengo udaleku trikielako matrícula epa zabalkiz izango dela maiatzaren 12tik 29 eta izena eman nahi duten haurrek, beren ikastetxeetara jo beharko dutela. Herrian ikasten ez duen umerik bailego, udaletxean eman dezala izena astelehenetan, asteartean edo ostiraletan.

Itzala tabernako barne dekorazio berria.

KARKARAK tabernak dekoratzeko ere balio duela erakutsi dute Itzalakoek; izan ere KARKARAREN azken orrialdean ateratzen diren Orio eta Alako hainbat marraski, marko banatan sartuta, han jarri dituzte apaingarri.

**Juantxo
HARATEGIA**
Hemengo txekorra.
Especialitatea: tripakizk, odolkaik,
etxeko produktuak...

Telefona: 83 18 37

Eusko Gudari, 17 Telefona: 83 12 44

**BOUTIQUE
ORIOS SHOP**

Udaberrirako eta
ospakizun bereziatarako
arropa aproposa

BORDATXO

- Bokadilloak
- Marisko rasio bereziak

13 30 14

• TRAGOXXKA •
PUB

Arizaga, 11
15.08.25

ZUMINTZA

- Ixapaindegia
- Depilazioa

Tlfnoa: 83 17 56



Gipuzkoako osoan 24 herri daude, eremu arkeologiko izateko ohoren dudenak.

Alde Zaharra Kultur Eremu Babestua izendatu dute

Orioko Goiko Kaleko alde zaharra Euskal Herriko Eremu Arkeologiko Babestuaren barruan sartu du Eusko Jaurlaritzako Kultur Ondasunaren Zubendaritzak, beste 18 herritako alde zaharrekin batera. Lehendik Donostia, Hernani, Hondarribia, Segura eta Debak osatzen zuten Gipuzkoako Eremu Arkeologiko Babestu hau; oraino 19ekin batera, 24 herri dira Gipuzkoako ohore hori dutenak: Orio eta aipatutako 5 horiez gain, Azpeitia, Arrasate, Bergara, Eibar, Elgeta, Elgoibar, Errenteria, Getaria, Leintz-Gatzaga, Mutriku, Ordizia, Soraluze, Tolosa, Urretxu, Usurbil, Zarautz, Zestoa eta

Zumaia ere bertan daude. Araban 25 herrik eta Bizkaian 23k dute eremu arkeologiko babestu izendapena. Herri guzti haueiako alde zaharrak Ertarokoak dira. XIII. mendea buin lehen eraikak; beraz, 700 urte baino gehtago dutenak.

Izendapen honek garrantzi handia du; izan ere herri haueiako udalek neurri bereziak hartu beharko baitituzte hirigintza planak egiterakoan, kultur-ondasun horiek babesteko. Honejatik plan horiek Foru Aldundialaren zuzendaritzapean eta babesean egin beharko dira, eta honek laguntza emango du alde zahar horien historia ikertzeko.

Igeldo independentziara

Baliteke Oriok laster beste herri batekin mugakide egitea. Gaur egun mugakide ditugun herriak Alai, Usurbil eta Donostia dira. Aurki, beharba da, Igeldo herria izango da. Donostiarren ordez, Oriok eklaiadean izango duen mugakidea.

Igeldotarrez osatutako Itsas Aurre elkarteak, azken zaptaurteetan, Igeldo Donostiatik banatu nahiak dabil. Pausurrik garrantzizkoena 1994ko azaroaren 27an eman zuten; erreferendum bat egin zuten eta herritarren %57 aukera horren alde agertu zen. Geroztik, beharrezko urrats legalak ematen ari dira. Azkena otsailaren 3an eman zen: Auzitegi Gorenak epala eman zuen. Donostiatik Udala segregazio eskaera trinitatizera behartzen duena.

Ez al digute, hauen antzera, Ortaizkak osoak Oriotik bereiztea eskatuko! Besteela...

IL GELATO

Etxeko helatuak eta
kruasanak

San Nikolas, 17 Tfnoa: 131747



ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA
MIXTOA

SOLARIUMA
PERFUMERIA

San Nikolas, 2 Tfnoa: 83 31 70

Eska ezazu zure txanda



RAMIRO

Telofaxa: 83 10 48

TXOMIN
arrayaindegia

Tfnoa: 83 27 47

Carmen

ARRAINDEGIA

Telefonau: 83 05 37

**Jorge Oteiza
Urteko Euskal
Herritar
Unibertsala**

Jaurlaritzak eta Kutxak bigarren aldiz eskainiko dute sari hau. Esku artean izan dituzten 45 hajtagaien artean, Jorge Oteizari eta Donostia-nako Orfeotari ematea erabaki dute. Atzerritan euskaldunon exaugariak zabaltsen dituzten pertsonei eta taldeei zuzendua dago saria: gure herrian ditugut gauza onak zabaltsen eta kampaña dugun trudi txarra alboratzen laguntzeagatik eskaini omen diente hie. Oteizart, gainera, euskal artea nazioarteko maila altuenean jarri eta egin duen lan oparoagatik.

**Plaiko
adjudikazioak**

Lehiaketan aurkeztu ziren eskarletatik, honakoek bereganatu dituzte hondartzako lokalak: bata Nikasio Uranga Garatek eta beste biak Jose Maria Berkoso Berzalek,



Eguraldiak ez zien lagundu ibilbidea egitera animatu zirene.

Jendea umoretsu Itziarko martxan

Apirilaren 25eko gauean milatik gora lagunek parte harro-gutun Itziarko 56. martxan. Maiztza hasierako ilargi betea aprobetxatuz, larumbatarekin egiten da Donostiatik Itziarrera ibilbidea. Garai hantean, elizaren inguruan zebilen gazte talde batetik sortu zuen ohitura hori. Santiago joaten diren erromesak imitatusz, bertako ermitetan bildu eta hauek ezagutzeko asmoz.

Arratsaldeko 20:30etan abiatzen dira Ondarretatik, eta Igeldo eta Bentatik pasa eta gero, 22:30-23:00k aldera San Martinera iristen dira partehartzialeak. Bertan ongi etorrira egiten zaie ermitako ateak irekiz eta karipatik joaz, ondoren Ibil-ura banatzan zaie oso gustu hartzen baitute. Berrixta bideari ekiten diole, eta herrira jaisten dira. Batzuk plazara joaten dira mokadutxo bat jateko asmoz eta, beste batzuk berrixta, tabernetara joaten dira zerbaite edatera. Hamabiak aldera, piska bat deskantsatu ondoren, Itziarrako bidea hartzen dute eta, gutxi gorabeheren, gotzeko 4.30etan allegatzen dira. Bidea errebatuz egiten da gurutzearen atzetik.

**Ikastaroak
Ostargik
antolatuta**

Aurten ere, Ostargi taldeak ikastaroak antolatuko ditu hurrengo ikasturteari begira. Eskainiko diren ikastaroak honakoak izango dira: bolilloa, gantxiloa, eskuz bordatua, gurutze puntara, makinaz bordatua, pintura artistikoa, polikromia, pintura oihalean, dekorazina portzelanen, pintura sediun, Patchwork, batnika, inkrustazina eta erremateak.

Interesatuek izena eman dezakete matatzaren 11tik 14ra bitartean arratsaldeko 16:00etatik 17:00etara Ostargiko lokalean.

**Udaleko langileek
paroa egin zuten**

Apirilaren 23an sindikatuek 10:00etatik 11:00ak bitarteko paroa egiteko detaldia egiri zuten, 35 orduko lan astea eskatuz. Udaletxean lari egiten duten guztiak egin zuten ordubeteko geldialdi hori.



Hiletza eta zerbitzu orokorrak

- ✓ Donostia eta probintziako ospitaletan
- ✓ Aldioroko zerbitzua
- ✓ Belotorio gelak
- ✓ Koroiak, eskelak, tramitazioak...

Araba Kalea, 35 Zarautz

Tel/Fax: 13 22 52



Eusko Godari, 18

€ 83.00/07

GABON

Plater konbinatuak,
pintxoak eta txokolatadak

Telefonoa: 83 06 09

Itsas-Ondo

Kaia kalea, 7

13 11 79

Itsas-Ondo

handik eta hemendik

ANTXON GOMEZ

Idazlea

"Zur egon, saskizetarien maneluen gainetik, hemen ere, Irlandan dioten bezala, gure eguna heiduko da."

(Egunkaria, 04/15)

Arantza, Itziar eta Nerea osatutako taldea berriz ikusteko aukera izango dugu Urrunhako ikastola-ren aldeko egunean.



Joxe MARI OSTOLAZA
Kazetaria

"Inkorporatuak bere berri gordina ematerako, gure lotzarako, komunikatu bezagukeen Jasandako tortura mezuak ezinbestekozat eta merezitakozat aurkeztua zaigu hedabideetan, eta nagusiaren agentzien gidoi demokratikoaren zatitzat onartua. Gehien goaren poza da batzuen lotsa. Frankismo demokratikoaren hotza."

(Argia, 04/05)



Giro ona ostiralero Salatxo tabernako emanaldietan

Apirilaren 17an Pólito Ibañezek kanuu kubatarrak eskaini zituen Salatxon eta Izagarrizko jendetza egon zen bertan. Tabernatik kanpo ere jendea zegoela esan zigun bertako nagusia den Joxek.

Apirilaren 24an, berriz, oriotarrak diren Itziar Albeniz trikoz eta Nerea Udabe panderroaz eta Getariako Arantza Udabek kitarraz, Izagarrizko giroa jarri zuten Salatxon. Jende ugari zen bertan, eta etengabe animatzen zituzten hiru neska gazteak.

San Nikolasen jo zuten lehenengo aldiz Orion, eta Getarian ere jardun dute pare bat aldiz, baina lehen aldia zen leku itxi batean jotzen zutela. Nerearekin hitz egin genuen eta oso ezberdina

omen da leku itxi batean jotzen, jendearen gertutusuna nabari baita.

Bestalde, hilabete honetan ere makina bat gaizia antolatu dute Salatxo tabernari. Horrela, maizizaren Jean Zarauzko Arakajun musika taldea izango dugu gaueko 23:00etatik aurrera. Hilaren 8an Johnny Ram Livek, jaotzaz hinduarrak den Londreseko kitarrajoleak, Reage, Soul, Rock and Roll eta Pop estiloko abestiak joko ditu. Gañera, maulazaren 1etik 29ra, Vicente Peironen argazki erakusketa izango dugu eta Indian egindako erretratuak erakutsiko dizkigu. Vicentek curriculum extin hobeak du, eta nazioarteko lehiaketetan ere sartak jaso ditu.

Autoak aukera
onean
AIA ORIO

Telfono: 13 04 38

AUTO-LAN

- Auto konponketak
- Olio eta gurpil aldaketak

Pelotari kalea, 6 83 00 34

Juan Albizu
elektragailuak

Eta orain

**Sukaldeko
altzariak!**

Telfnoa: 83 12 49

EROSLE
AUTOZERBITZUA

IRADI
AHOLKULARITZA



Alta Lertxundi, 33 Telefax 13 46 96

**Infantilak lehenak
Espainiako
txapelketan**

Apirilaren 4 eta 5an San Pedroren jokatu zen Gipuzkoako batelean txapelketan, infantilak eta jubenilak lehenengo postua lortu zuten, seniorrak laugarren eta kadeteak ez ziren klasifikatu. 18 eta 19an Legutianon jokatu zen Euskal Herriko txapelketan berriz, infantilak lehenengo postuan, jubenilak bigarrenean eta seniorrak laugarren postuan iritsi ziren. Azkenik, hilaren 25 eta 26an Castroen jokatu zen estatuko txapelketan. Juanito Mirallesek entrenatzetan dituen infantilak aipatu behar dira, hauek lehenengo postua lortu baitzuten. Infantilen batela honakoek osatzen zuten: Xabier Ostolaza, patroia; Mikel San Sebastian, Unai Amenabar, Mikel Arostegi eta Almar Galarraga. Jubenilak berriz beren tandan lehenak izan ziren.



Gurutzearen surrekaldean Talai Mendiko partaide batzuk hamaitakoa banatzen.

Hilaren bukaeran izango da Kukuarri eguna

Hilaren 31n igandea, Kukuarri eguna izango da, eta, urtero bezala, aurten ere. Talai Mendik antolatuko du egun hori. Igandean, bertaratuz nahi duen jendea bere kabuz igoko da Kukuarriaino. Behin puntara iritsi ondoren, nahi duenarentzat, Talai Mendikoeak prestatuta, salda eta txorizo pintxoak izango dira. Gero, eguerdi 13:00ak aldera meza izango da urtero bezala, eta, handik aurrera, bakotza libre izango da nahi duena egiteko. Hala ere, aipatu beharra dago badirela Kukuarrira bezperako egunean igotzen direnak; horientzat ere ez da arriskurik izango, antolatzaleetako batzuk ere bertan egongo direlako.

Horrezaz gain, Talai Mendi elkarleak hurrengo urtean 50. urtea beteko du, eta antolatzaleei zerbaitegiteko gustatuko litzaieko. Horretarako bilera ireki bat egingo dute hil honen 16an, egardik 12etan Talai Mendiko lokalcan. Bertan, diutorren urtean antolatu daitekeen programaz hitz egiteko.

Pala txapelketa

Apirilaren 18an eman zitzaion hasiera pala txapelketari. Guztira zaipi bikote dira: Beldarrain-Iturain, Aranburu anaia, Atorrasagasti-Mujika, Martikorena-Arostegi, Aiako Eitzmendi-Manterola, Iribar-Iturralde eta Illarramendi-Berasaluzé. Asteburuero bi partidu jokatzen dituzte. Bikote horien guztien artean ligilla bat jokatuko dute lehenabizi, eta lehenengo lauek final erdiak jokatuko dituzte eta trabazleek finala, San Pedro aurreko azken igandean.

**Futbito txapelketa
hasi da**

Aurten hamazpi talde parte hartzen arí dira, hiru taldean banatuta. Zortzi onenek ligan jarraituko dute eta hurrengo zortziek, berriz, kopa trabazleko lehiatuko dute elkarren artean.

**Nestor
Gozategi
ITURGINTZA**



907-224100



Zure gustuko arropaak

Estropalari kalea, 12 - Telf. 13 28 16

**ITURAIN
estankoa**

Aritzaga Plaza ☎ 13 44 73

ALUYOLA, S.L.

FATIMA AZPIROZ

LEIHOAK, ATEAK, PERSIANAK

P.V.C., ALUMINIOA,

POLIURETANO SISTEMA

PERFIL THERMIKOA

PRESUPUESTOAK KONPROMISORIK GABE

Jaizkibel plaza, 8 LASARTE

Telefonia: 36 22 77



Alebin neskak, finala
jokatu zuten asto-
buruan txurrukan
zeuden konibentzian,
eta handik zuzenesn
joan ziren Zarautza.

Ikastolako alebin neskak Zarauzko finalean

Urtero gertatzen den bezala, aurten ere herriko ikastetxetako neska-mutilek parte hartu dute Zarauzko plaieroetan. Ikastolatik guztira 10 futbol talde osatu dira. Bi talde benjamín mutiletan, baina hauek ez dute kompetiziorik izaten txikiak direlako. Alebin mutiletan hiru talde osatu dira, eta horietatik bat final erdieta iritsi zen, baina galdu egin zaien bertan. Alebin nesketaan berriz, bi talde zeuden, eta horietako bat finalera heldu zen. Finala apirilaren 26an jokatu zen, oso eguraldi txarra egin zien, eta 3-1eko emaitza galdu zuten oriotarrak; taldea, ondorengo neska hauek osatzen zuten: Ane Illarramendi, Osintza Aiestaran,

MataLEN Murgiondo, Ainhoa Urkizai, Ainhoa Matheos, Aintzane Tena, Leire Etxezarreta, Ekiñe Sazá, Ainhoa Sayalero, Shua Larranaga eta Estibaliz Etxeberriak; entrenatzaile lanetan Imanol Esain izan zuten. Infantiletan mutilez osatutako bi talde zeuden, eta bi horietatik bat final erdieta kalera-tua izan zen. Infantil nesketaan talde bakarra ze-goen.

Eskolakoek ere, parte hartu zuten plaieroetan, hauek osatu zituzten taldeak mixtoak ziren, hau da, neska eta mutilez osatuak zeuden, bai alebin eta baita berjamen kategorian, horrela azken urteetan egin duten moduan.

Kamel Ziani 8. Rotterdamen

Kamel apirilaren 19an Rotterdamen korrutzen maratoian 8. postua lortu zuen, 2 ordu 12 minuto eta 9 segundoko denborarekin ez zuen bere errekorra lortu, baina hala ere nahiko gerto ibili zen.

Portularrumen Errealeko Kapitaina

Errealak Aste Santuan urtero antolatzen duen nazioarteko gazte mailako futbol txapelketan, aurten Errealak eta Real Madrider jokatu zuten finala Anoetan, apirilaren 13an.

Errealak berdinaketa egin ondoren penaltitan galdu zuen, final hartan taldeko kapitaina janzan oriorat batek jokatu zuen, Portularrumek. Aspaldiko urte hauetan Donostian bizi den gaztea, pausu sendoak ematen arri da. Horrela, bada, Imanolek ordezko ona izango du.

KELER

GURE HERRIKO GARAGARDOA

Iñaki Garate
Aseguru-agentea

C C L
CARASA, CILVETI, LACORT Y CIA, S.A.

Aseguruak

Eusko Gudari, 14 (atzek.)-3. Telefonoa: 13 46 07



HERRI IKASTOLA

ABESLARI KALEA, 8
TEL. 83 47 04
FAX: 13 09 38

“Zerrenda batean 50etik gora apustu ditut idatzita”

Joan den apirilaren 5ean omenaldia jaso zuen Iruntxiberri korrikalariak Tolosako zezen plazan. 60 urte dituen arren, sasoi onean dagoela erakutsi zien bertara hurbildu zirenei.

Omenaldia hau jaso eta gero, erretiratzeko tan al zara edo jarraitzeko asmoa al duzu?

Ikust egin beharko dut. Ibil nahi nuke, deportea ezin da utzi ahal dela, baina ezberdin da denbora pasa ibili edo plazaratzea. Ni nahiko utzita nengoentzat, exibizioak egiten nintuen arren, baina aurreko udaran sua pitzu zen Alerbek apustua jokatuko ote zidan edo ez, eta hortik hasi nintzen berriro prestatzen. Azkenean, berak atzera egin zuen. Oraindik ere hor dago su hori, baina ez dut uste bera ausartzen denik. Lehendik ere apustu asko egina gara eta ondo komponentzen gara. Nik berari ere lagundu izan diot prestatzen baina pike hori hor dago, kirolean bakarrik, ordea. Apustua pasa eta gero, gorrotoa alde batera utzi beharra baitago.

Jendeari gustatzen ziona apustu saltsa hori da, eta plazarik ez da beletzen bestelako

tzi edo bederatzl km. izango ziren, eta hastenratik alde egin eta ez ninduten gehiago ikusi karerra guztian. Federazioko jendea harrituta zegoen, eta haindik eta hemengo Luisarrak (Don Jesus apaiza buruzelai) kirolaria tizateko animatzen salatu ziren, baina nire aita zena apustuzalea zen eta ez zidian utzi deportista ibilzen, nik pena handia izan banuen ere.

Zarautz-Aia lasterketak marka ere izan zenuen, exta!

Urte askotan Aiako Errota zenak eduki zuen. Gu apustu munduan ibiltzen ginenez, ez genuen markarik egin nahi izaten, eta horren pena ere badut. Baina urte batean, Irazustari apustu bat trabazi eta gero, nire burua ondo ikusi nuen, eta urteetan ere aurrera nintzen.

Gero herriko Luisarrak, Euskal jaia zela eta, beste bat antolatu zuten Ordiziako eta halekin joan nintzen; aukera nuen junior edo senior bezala korritzeko. Nik senior mailan egin nuen, karreira luzeagoa nahiko nuelako. Zor-

doala ikusita (36 minutuen) momentu onena iruditu zitzaidan marka berria jartzeko. Azoaren 4an jarri nuen eguna, sekulako hego hatzea egin zuen eta eguerdian egin nuen saioa. Aurreko markari ia hiru minuto eta erdi kentu nizkiola uste dut. 38 minuto eta 37segundutan egin nuen, baina jota iritsi nintzen.


Ez al duxu beste apusturen bat egiteko asmorik!

Beno, orain tenta zioa daskat, lehengoan Tolosan jendeak bata eta bestea esan zidala. Baina edade ho-

netan ez nuke apusturik egin nahi, asko pentsatu beharreko gauza da. Eguna eta ordua jartzen direnean egin behar izaten da, kale eginez gero zu gelditzen zara gaizki eta gehiago sentitzen da urteetan aurrera zoaznean, oso gogorra delako prestatzea. Hortik pasa ez denak ez daki.

Bukatzeko, nola ikusten dituzu oraingo korrikalariak?

Korrikalari asko dago. Karrera popularran, milaka irteten dira, baina onak gutxi daude: Kamel Ziani, Diego Garcia, Martin Fiz...



“Edade honetan apustu bat egitea asko pentsatu beharreko gauza da.”
Euskaldunon Egunkariak utzitako argazkia.

ALLIANZ-RAS
aseguranak

Allianz  Lias

MARIGRE ZALDUA

Aseguru agentea

Baj Ondo, 10.
Sebe-sina
Tel. 13 47 60

SARASUA ERRETEGIA

Plater bereziak: — Arrain zopa
— Arrain eta haragi erreak

Eusko Gudari, 29

Tfnoak: 83 00 05
13 25 32

Euskal preso guztiak Euskal Herrira orain

Euskal preso guztien eskubideen aldeko herri ekimenen bultzatu nahi duten oriotar batzuk gara.

Honezkero igaro dira hamarka urte Estatuak euskal preso guztiei, politiko nahiz sozialei, dispertsioa aplikatzen die-la. Kartzeletako legealdiaren aranhera preso bakotza bere bizilekutik ahalik eta ger-tuen dagoen espeltean kartzelaraturatuta egon behar du. Estatuako preso guztiak honela gertatzen da euskaldunekin izan ezik; Euskal presoak ahalik eta urrutien bidaitzan dituzte.

Legedi horren 92. artikuluan, gaisotu-sun sendaezin bat duten presoak kalera-tu egin behar direla dio. Hori ere ez da betetzen, eta oraindik badira bere bizitza-ko azken egunak kartzelan eta bere familietatik urrun pasatzen ari diren presoak. Kasu horretan ere Estatuak bere legeak hausten ditu.

Oraindik bada 90. artikulu bat. Preso batek ez ditu zigorraren urte guztiak kartzelan pasatzen: zigorraren-hiru laurde-nak betetzen dituztenean, askatasun baldintzapetua eskuaratu eta kaletan ego-teko eskubidea dute. Euskal presoen kau-suan eskubide hori ere ikatzi egingen zaie.

Estatuak konsientekei hausten ditu lege hauek presoen zigorrak areagotzeko, baina horrekin hatera presoen senide eta lagunak ere zigortzen ditu. Guraso bat-zuek, beren seme presoari berrogei mi-nutuko bisita bat egiteko, Espainia osoa



IGOR SALSAMENDI

Presoen eskubideen aldeko - : herri ekimenaren kidea

zeharkatu beharrik arazo larriak ekar-tzen dizkie senideei. Bisiak egiteko aukera gutxiago dago, kartzela batetik bestera bidaitzan baitituzte inongo abisurik eman gabe, bidaetan diru ugari gastatzen dute eta badira bidaietan horietan bizitza galdu duten bederatzi senide ere. Presoen es-kubideak bermatzen dituzten lege horiek Estatuak berak hausten ditu, denon es-kubideak defendatzeko ardura duen Estatuak berak.

Elkarre Internazional, Euskal Parlementuak eta Europarrak politika hori salatu arren, ez dute inongo botererik Espainiar Estatuari bere legeak betearazteko. Aukera paregabea izan gersuen pasa den hilean Bilboko manifestaldian politika ilegal honekin gure desadosta-suna erakusteko. Horrelako ekintzetan parte hartzea da egin dezakegun gauza-rik onena. Zurrigarria izan zen presoen

eskubideen alde Bilbon bildu zen jende-tza ikustea; hedabideek guk nahi adina ohizartzen eman ez bazioten ere. Mota guztieta-ko jendea ikus zitekeen bertan, eta hori da jormatu behar dugun bidea, hain zuzen ere.

Orion sortu berri dugun ekimenean hori lortu nahian gabilta. Elkarren arteko ezberdinatasunak sahestu eta presoen eskubideen alde lan egin. Antolatzen diren ekintza, protesta eta bileretan parte hartzea da Jaguntzeko erarik egokiena, aldamenean nor izango den alde batera utziz. Gure helburua lortzeko egin behar-ko den bidea luzea izango da, baina pixka-na-pixkanaka zerbait lortzeko itxaro-penarekin gaude.

Bakea ez da gauetik egunera zerutik eroriko zaigun zerbait. Nire ustez, bakea da eraiki egin behar da, itxaroten egon gabe. Harriz harri, pixkanaka-pixkanaka, pertsona eta ideiei zor zaient errespetoa oinarritzat hartuz, eta eskubide guztiak bermatuz. Argi daukat, presoen eskubideez gain beste kolektibo askoren es-kubideak zapaltzen direla, baina arazo hori konponzeak Euskal Herriak pairatzen duen gatazka orokorra konponzeko aukerak handitu egiten dituela uste dut. Ez dut esan nahi presoen eskubideak errespetatzeak gatazka homen irtenbidea izango denik; baina, lehenago esan du-dan bezalak, bakea harriz harri eraiki beharra dago.

LIZASO

ERLOJU eta
BITXI DENDA

ORIO, KAI 5 TFNOA: 83 10 90
ZARAUTZ, IPAR 6 TFNOA: 13 17 43

LIZASO

ALTZARIAK

Eusko Gudari.46 ☎ 83 07 84

KarKara



Xabier Alberdi
zarautzarra
aritu da
Aiako
historiako bi
pasantzen
gaineran
hizketari.

Herriko historiari buruzko hitzaldiak

■ *Erromatar garaia eta XVIII. mendeko matxinada azalduko ditu Xabier Alberdik*

Asentziotako jaietari, bi hitzaldi antolatu dira Aiako. Hizlaria Xabier Alberdi Loinbide 28 urteko zarautzarra izango da, Historian lizenziatutako gazte bat dugu. 1992. urtean karrera bukatu eta, genetik, EUTxko fakultateko irakasleek zuenduriko hainbat ikerketa historiko eta arkeologikoetan hasi zen lanean. Hostela, ikerketa munduan murgiltzeaz gain, berarentzat lambide ibihiatu ziren ekintza horiek. Orain dela bi urte, XVI. eta XVIII. mendeen arteko Gipuzkoako itsas-ekonomiari buruzko tesi doktoralra egiten hasi zen, Eusko Jaurlaritzako beka bati esker. Maiatzaren 21ean eskainiko digun gaia *Aia erromatarren garaian* izango da. Hitzaldi horretan erromatarren garaian Euskal Herrian zein egnera bizi zen azalduz hasiko da, hotsela guere historian koka gaitezen, eta, ondoren, Aiako buruzko datuak emango dizkigu. Hizlariak hine-

nez, Aian eta inguruari aztertutako erromatar arrastamatik lortu dituzten datuetan oinarrituko da; dena dela, azpimarratu nahi du datu horien interpretazioa egiten salatuko dela, henetan zer geratu zen jakitea zaila delako. Maiatzaren 22an honako gaia izango da, *1766ko Matxinada Aian*. Matxinada hauetako buruzko datuak hainbat iturritatik ateratzen ditu, eta, here tesia osatzeako behar zituen datuak bilatzeko, hainbat artxibo arakatzen aritu deinen lortu ditu gehienak. Matxinada hainek ia gaudaino ezagutu dugun jauntxo eta maiatzaren arteko ezberdinotasun ekonomiko, politiko, sozialengatik sorturiko indarrezko gertakariak omen ziren. Aiarrak oso hurbilek ikatzen gaituena gaia da, kontuan izanik Aiako lur gehienak jauntxo batzuen eskuetan zeudela.

Aiako KE Gipuzkoako txapelduna trinketean

Trinketeko Gipuzkoako txapelketa jokatu berria da, eta bertan Aiako Kirol Elkartea ordezkatu zuten Eli Lasa alarrak eta Xole Exegia goizuetarrak Gipuzkoako txapeldunak suertatu ziren. Igilan partidu bakar bat ere galdu gaue, finalean 30-25 nagusitu ondoren Anoetako Kuku taldeari.

Kotxe istripu larria izan da

Pasa den apirilaren 19an kobre istripu larria izan zen Oriolik Zarautzera errepi-dean. Bertan lau gazte hil ziren; gazteak Astigarragako sagardotegi batean araldu zuten, eta, istripua gertatu aurretek. Orion egon ziren zerbaite hartzen. Istripuan bildaketa bat Urdanelako Xabier Albizu gaztea zen. Gainera, Arruti baserrikoa Martin Arriaga, 34 urtekoa bera, eta 32 urteko bere emazte Arantxa Zulaika Larriki zaiztuak gertatu ziren: lehenergoak kadera hautsi zuen eta bigarrenak buruan kolpe gogorra jasan. Biak ere oraintindik ospitalera-tuta daude. Gure dolumina bisitatu nahi diegu Xabierren familiari eta Arrutiko senar-ernazteei lehenhailehen etxean ikusiko ditugula desituz.

Alapa
Taberna Tel. 99 00 56

LTXERRI
Jatetxea
Telefonia: 83 07 62

ARISTERRAZU
Jatetxea
San Pedro Tel. 83 45 21

JOSE MARI LERTXUNDI

BASOZAIN BERTSOLARIA

Jose Mari urte askotan Diputazioak Laurgainen duen basetxeko arduraduna izan da. Bainan duela hilabete batzuk jubilatu da. Lanari agur esateko bertso sorta bat argitaratu du. Basozain lanetik jubilatu da, baina bertsolari eta idazle lanean oraindik ez ditu azkenak eman.

Inaki Iturain

Bertso horietan nolabaitako tristura edo iragan mina sumatu dut. Ez, tristurarik ez dut sentitu. Azken aldera, uzteko gogoa nuen. 41 urte eman ditut lanean, 23rekin hasita, 11 urte basozain eta 31 basetxeko arduradun, Diputazio politikoaren zerbitzari.

Bi aldi desberdinako politiko jendea ezagutu duzu han, Francoren garaikoak eta ondorengoa. Alde handia izan alda zuretzat hainen artean? Bai, aldea badago, baina denekin ondo moldatu naiz. Ni ez naiz partidu batera itxian, uste dut ez zaiola itsu-itsuan partidu bati jarraitu behar; ni denen gainetik euskalduna izan naiz. Bainan bazezen aldea bai, ordukoek ez zuten euskal giroa batere maite, halek. Madril aldera gehiago tiratzen zuten.

Zure bertso sorta horretan badirudi asko miresten duzula Laurgainen inguratuz zaituen natura? Ni beti txoratu nau basobizitzak. Hain da zoragarria! Etxetik irteri eta han dauka-zun bakea, giroa... Hainbeste zuhaitz-mota, txori abesti. Baso-bizitza han dihoa bidea eginez. Pizti batzuk izkutatu egin dira, beste batzuk indarrean daude. Giro

horren barruan zoramendu handia izan dut. Orain Alako kalean bizi naiz eta gehiago estimatzen dut mendi giro hura.

Udaberria al da urtarorik ederrena?
Bai, udaberria eta udazkena. Udaberriak sortzen du etorkizunaren arnasa; baina udazkenean han daude prestatzen joan diren fruitu guztiak, lurrazen emaitzak, arbolak oso kolore politekin jazten dira, txonak badoaz Afrika aldera pasatzen... Mugimendu berezi bat du udazkenak.

Joera duzu poesiarako, naturaren edertasuna hitz ederren bidez adierazteko eta bertsotan agertzeko.
Bertsotarako oso gaztetatik izan dut joera, baina gero itzalita egon naiz. Lana ere jai ta aste egin dugu-eta. Laurgaingo etxearen jende gehienetan asteburuan izan da eta irteko astirik ez dut izan. Azken aldian, 50 urtetik

aurrera, izan dut piztualdi bat. Aia eta inguruko batzuk talde bat osatu eta askotan bildu gara gure etxeen bertsotan. Bizpahiru txapelketetan parte hartu ere egin dut. Orain utzi egin diot, gazte asko dabil, gehiegiz, eta denentzako lekurik ez dago.

Alako gazteek ez du ematen bertsotarako joera handia dutenik, herri kiroletarako handiagoa beharbada?

Ez, bertsolaritzak ez du bultzada handirik izan, nahiz Olaso bat txapelketako finalera iritsi zen. Herri kirolari ere bizitzaz murrizta ikusten diot. Lehen baserri denetan idia zegoen, orain, berriaz, denetan traktorea dute, eta gauza guztietan berdin. Herri kirola gordetzea ona da eta egundoko meritura dute horri eusten diotenek, baina diru asko behar da prestakitarako eta ez diot etorkizun gehiegiz ikusten.

Idazten ere ikasi zenuen, baita liburu batzuk argitaratu ere.

Asko lagundi didate horretan, Aita Zabalak batez ere. Aiako Izuelako artzaaren bizitzaz idazteko asmoan etorri zen niregana, lehenengo aldiz, eta lagundi egin nion haren arrastoaren atzetik, liburua argitaratu ere egin zuen haren bizitza eta bertsoekin. 1760an-edo hil zen, Pernando Amezketarra-rekin batera historian agertzen diren bertsolari zaharrenak omen dira bi hauetek.

"Beti festara begiak" zure azken liburuan erromeria-ren gainbehera kontatzen duzu. Hondoia jota al dago?

Bai, zeharo. Trikitixa, egia esan, indarrean dagó, baina inork ez du dantzan egiten. Lehen, trikitixa egonez gero, erromeria segurua zen, ez zen talde baten beharrak izaten denak dantzan hasteko, bi orduko bidea



1988an Aia eta Aia inguratzen duten 9 herrien arteko bertsolari txapelketa irabazi zuenekoa

baldin bazegoen ere gustora joango ginen erromeriara, balta etorri ere.

Zure liburuan sumatu nuen garai batean dena hobea zelako iritzia. Hala al da? Ez, hori ez da horrela. Nik adierazi nahi nuen garai bateko erromeria giroan hobeto elkartzen zela gazte jendea. Baino orduan ere baziren borrokak, orain baino gehiago. Dantza lotua ez zegoen altatu ere egiterik. Liburuan jarria dut, dantza lotuan egiteagatik nola eraman zituzten kartzelara gazte batzuk. Elizak denak bere mendean zeuzkan eta iruditzen zitzaion hala behar zuela, eta denak beldur-beldurrak. Orduan Kongregazioa zen, gazteen batzar hori, eta joan gabe geratzzen zena behatzarekin markatzeten zuten.

Utziko al didazu zure hitz hauet hatzez idazten?
Utziko ez dizu, bai! Baino nik ez dut ikusi h hori non jarri behar den. Euskaldunon arteko batasuna fortzeko hizkuntza batua beharrezkoa da eta ondo ikusten dut euskera batua. Baino ikastolatik-eta ateratzen den euskeraren abotsa zeharo aldatua ikusten dut. Niri beti garrantzi handikoa iruditu zait tokian tokiko doinua eta abotsa behar dituela hizkuntzak. Bestela, denak berdinak jari ezkero, granjako oillaskoak bezalaxe da hori, denak kolore batekoak, berdinak. Baztangoak eta Eibarkoak berdin egitea ez litzateke normala izango.

**Joxe Mari
orain denbo-
ra gehiago
izango du
liburu tarako
Laurgaingo
basetxearen
arduraduna
izan den
bitartean
balio.**

Baserria ere gainbehera al doa erromeria bezala?

Baserria oso galzki ikusten dut. Diru laguntzak-eta izan dira, batuetan egundoko ikiliak-eta egin dituzte; baina neska batek ere ez du ezkondu nahi baserrira, eta etorkizunik mutilzaharrekin ez dago. Eta baseri askotan horixe dago, agure zaharrak semé mutilzaharrekin. Nire ustez, baserri asko geldituko da, 20 urte pasatzerako, baseri martxatik. Orain 80 urtetik hona 100 baserri faltako dira, eta Alan bezala beste tokietan.

Nekazal-turismoa izan al daiteke horrentzako aterabidea?

Eusko Jaurlaritzak, beste nonbaiten ikusita, hermen ere dirulaguntzak eman ditu horrentzako eta, nire ustez, baserritarra hori aprobetxatzen joan da. Baserri zahar asko zeuden eta lagunza horrekin baserriak beritu egin dira. Ondo daudenek bere defentsa izango dute horrekin, baina jendea etortzeko bi hilabete dira,

eta beste 10etan baserritik bizi behar duzu.

Maiz, Iruntxiberri,... herritik kanpora Joan ziren bizitzera. Orion bizi diren zu bezalako Lertxunditar asko ere ez dakit ez ote diren Aiatlik etorriak. Zer, Aiatlik aldapa jaistea errazagoa al da igotzea baino?

Beti izan da joera horrentzako. Itsasertzetik barrura askoz ere gutxiago joaten da. Garai batean alderantziz omen zen baina orain beti behera aldera; lan tokiak han daude eta eguneroko ogiak indar haundi du. Orioko Lertxunditar asko ere Aiatlik jaitsiak dira, bai. Benitone

kastakoak ere bai. Haren altona-edo izango zen Uzkudun (Uxun) baserrikoa, han San Pedro inguruau, eta nirea ere bai.

Azken galdera egiozu zuk zeure buruari, nik egin gabeko bat.

Hauxe esango dizuet: KARKARA sortu zenuten, KARKARArako egin dugu solasaldi hau; eta nik nahi nuke Aia eta Orio, nolabait, batzen dituen aldiak hau indarrean egotea. Izan ditzala harpidedun eta irakurle asko. Hara, sortu zenean nik ez neien karkara zer den, guk Aian karkarua esaten diogu, eta Usurbilien karkaba esaten omen diote. Nik lan handitzat jotzen dut hilero-hilero hori aurrera ateratzea. Ikasi ere beti ikasten da zerbait, gainera.

'NESKA BATEK ERE EZ DU BASERRIRA EZKONDU NAHI, ETA MUTILZAHARREKIN EZ DAGO ETORKIZUNIK'.



Gozategi Enparantza, 11 - Aia
Tlf. 83 43 22

- ✓ 'Bertako Babarrun eta harriak'
- ✓ 'Etxeko sukaldetako eta atsegina'
- ✓ 'Haurrentzatmena berezia eta jolaslekua'

Benta Berri
Eguneroko menuak

Aitzpea, 14 Tlnoa: 83 42 75



Euskeraz noiz

Euskera denon ahotan dugun hizkuntza da, denon bihotzeta dagoen hizkuntza eta beronetaz arro gauden hizkuntza. Denok, edo ia denok, dakigu, baita ere, zein garrantzizko zaigun eta beste hizkuntza batek zenbat zaitasun ematen dizkigun. Hala ere, gure ama hizkuntza, horrela bagoaz behintzat, desagertu egingo zaigu. Eta horren adierazpide, gure herriean entzuten den hizkuntza, musika, irratia eta telebista dira.

Gure telebista edo irratieta den horrek, euskerazko hitz, gubo batzuk irakasten dizkigu; irratia askotan, esandako hitz edo esaera zahar asko gazteleraez erabiltzen dituzte eta batzuetan ingelessez (euskeraz ez baleude bezala), eta, hori gutxi balitz, musika arloa okerragora doa, zeren eta orain ia ez da musika euskaldunik entzuten, eta hori gure herriko bertatik abiatuta. Eta, askotan, behartuta gaude gure hizkuntza ez den eta ulertzen ez dugun hizkuntz bateko musika entzutera.

Baditugu, baita ere, herri bakoitzean euskeraz ez dakieta eta ikasten saiatzen ez direnok. Baditugu, baita ere, axola ez zaienak eta euskera demonioarekin lotzen dutenak. Jende horri euskeraz hitz egin beharra dago, horrela bakarrik ulertuko dutelako guretzat duen garrantzia. Eta pixkanaka-pixkanaka, agian, jende horrek euskera ulertu eta hitz egingo du beste euskaldunokin batera.

Baita ere, oso interesgarri eta garrantzitsua da bakoitzak bere herriko hizkera erabiltzea, horrela euskerari zabaltasuna ematen diogulako.

Beraz, euskeraren aurrera-atzera pausoia gure esku dago eta, nola ez, Euskal Herrian dauden komunikabide, publiko eta gainontzeoen esku.

Oreitz Manterola

Asentsio feria maiatzean

Dakizuen bezala, Asentsio eguna ez da beti egun berean izaten, eta oraingoan maiatzaren 24a tokatu da. Urtero bezala, ganadua izango da gai nagusietakoa, baina ez bakarra, beti bezala feriazale ugarki ziurtatu baitigute hemen izango direla bereo produktuak saltzen: Ioreak, arropa, oinetakoak, jostailuak, tresnera, traktoreak... Eta, horrekin batera, artisautza erakusketa-salmenta ere izango da: otangintza, soinu tresnak, Iore lehorrok, buzttingintza...

Baina hori ez da izango den ikuskizun

bakarra, arratsaldeko 6etik aurrera Orioko Harribil dantza taldeak aintzirako euskal jantzien erakusketa egingo duelako, arropa horiek noizkoak ziren eta non erabiltzen zituzten adieraziz; eta, ondoren, dantza saio bikaina eskainiko dute frontoian. Egun horretan bazterrak girotuz joateko, goizetik argazkiak agertzen diren herriko txistulari eta danborrekoek diana joko dute kalekale; eguerdi partean trikitilarien txanda izango da berriz.

BERRI LABURRAK

MENDI IRTEERA ARALARRENA

Olarteta mendizale taldeak irteerak antolatu ditu datozen hilabetetarako. Lehenengo datorren maiatzaren 30an izango da, hain zuzen ere Larrainetik abiatuaz Aralarrean dauden Mikel Deunaren santutegirako. Joan nahi duenak herriko plazara agertu besterik ez du goizeko 6:30etan. Egurldia lagun izanez gero

kotxez joango dira Larraitzeraino, eta hortik aurrera oinez.

IRTEERA PAGOETAKO PARKERA

Maiatzaren 24ko goizeko 9:30etan emango zaio irteera Urdanetan, Ibilbidea egin ondoaren, berriro ere abiapuntura intsiko dira eguerdiko 9:30etan.

ALUSTIZA AUTOBUSAK


Autobus litera eta 16, 19, 25 eta 56 plazakoak
Bildaiatu eta ezkontzeta edo sagardotegira joateko

13 28 93 / 83 08 80 Mugikorra: 909-40 12 34 / 909-43 32 24

SEGA

ezkontzak, bataioak,
jaunartzeak

Tfnoa: 83 07 16 Erreka auzoa

**JOSE MIGUEL LEUNDA**

Udaleko EAko zinegotzia eta Kultura batzordeko burua. Berari egokitu zitzaion kultur etxe berria inauguratzea eta bere ardurapean dago, baita ere, hartuko duen norabidea zehaztea. Horretarako, ezinbestekoa iruditzen zaio kultur etxerako arduradun egokia lehenbailehen aukeratzea.

**ITZIAR OLARIAGA**

Berea da, batez ere, kultur etxea egitasmo hutsa izatetik errealtitate izatearen meritua, zinegotzi lanetan jardun zuen garaian berak egin baitzituen kultur etxea aurrera ateratzeko behar ziren lariak. Mahai inguruan, batez ere, herritarren partehartzearen garrantzia azpimarratu digu.

**RIKARDO UZKUDUN**

Injinerutza Teknikoa ikasten ari da Donostian. Harribil dantza taldeko eta Talai Mendiko partaide da. Pertsona kezkatua eta mugitua da, eta, alde horretatik, kultur etxearen erabilpenari buruz oso ideia argiak ditu. Kultur etxeak zein zerbitzu eta nolakoak eskaini behar dituen adierazi digu.

MAHAI INGURUA

KULTUR ETXEA

hizpide

JAKES GOIKOETXEA - JABIER ZABAleta

URTE ASKOTAKO GABEZIA ETA ITXARONALDIAREN ONDOREN, 1996KO ABENDUAN INAUGURATU ZEN HERRIKO KULTUR ETXEA. MAISU-MAISTREN ETXE ZAHARRA BOTA ETA BERRI-BERRIA EGIN ZUTEN BERTAN. ERAIKINA EGINA DAGO, BAINA BENETAKO KULTUR ETXE BIHURTU BEHAR DA: HERRIKO KULTURAREN ERREFERENTZIA ETA TOPALEKU BIHURTU. DAGOENEKO HAINBAT TALDEK BERTAN DU EGOITZA, KARKARAK TARTEAN. HALA ERE, ORAINDIK KULTUR ETXEAREN NORABIDEA ZUZENDUKO DUFEN TEKNIKARIA FALTA DA, ETA BEHARREZKOIA IKUSTEN DA.



MAHAI INGURUA

KULTUR ETXEA hizpide

**Hasteko komuni da historia
pixka bat egitea, kultur
etxeak jarraitu dituen
urratsak azaltzea.**

Olarriaga: Kultura batzordeko buru mintzela ikusi genuen kulturaren mugimendua sortzen ari zela (zine-kluba, emakumeen taldea, KARKARA, euskaltegia...), baina ez zegoela leku egokirik horientatzen. Herrian ez zegoen gune edo erreferentzia leku bat, jende hori bildu eta gauzak aurrera ateratzeko.

Gainera, liburutegia udaltxearen azpian oso egoera txarrean zegoenez, maisu eskuola zenera ekarriz zuten. Baina, hezetasunaren ondorioz, alzariak eta liburuak osteltzen hasi ziren, eta, jakina, zerbaitek behar zela ikusten zen. Orduan pentsatu genuen Maisu Etxea aprobatxatzea, baina herrez etxebizitzak zirenez eta zutabe asko zituztenez, zaharra bota eta berria egitea era baki genuen.

**Zein balarazio egiten duzue
etxeaz? Kanpoko itxura,**

barruko antolaketa, funtzionaltasuna...

Olarriaga: Garai hartan herrian lanean zebiltzan kultur talkleekin batzortze irekiak egin genituen proiektua eztabaidea eta denon artean erabaki genuen barruko antolaketa. Hasiera batean, musika eskola behean sartzea pentsatu zen, baina etxea egiten aritzela ura sortu zen eta, beraz, baitzertu egin genuen musika eskola bertan jartzea.

Zegoen leku guztia aprobatu zen, eta ahalik eta zutabe gutxiengarri jarri ziren. Gure kezka nagusia izan zen barrualde guztia aprobatxatzea.

Solairu bat gehiago ematea ere pentsatu zen, aurrealdean harri gehiago jartzea... baina horiek guztiek alboratu egin ziren diru kontuengatik.

Dena den, ni benetan kezkatzen nauen barruko erabilera da, jendeak zenba teraino erabilitzen duen.

Uzkudun: Erabilgarritasun eta egitura aldetik gustatu zait; batez ere, beheko gela handia. Gela hainbat ekitalditarako aprobatxatu ahal izatea nahiz zenuten eta tamaina polita du.

Olarriaga: Jendeak beti komentatzen du txikiagia egin dugula, txikiagia geratuko dela... Nahiko nuke txikiagia

geratuko baitz! Nire bekdurra da handilegia ez ote den geratuko. Herri askotan kristoren kultur etxeak egin dituzte eta ez dute funtzionatu behar bezala.

Kultur etxea garaiko premiak ikusiz eta etorkizunekoak aurreikusiz egin genuen. Kultur etxeak erreferentzia izan behar du herriko taldeentzat, nahiz eta bakoitzaz bere aldetik lanean jardun.

Zein da Orioko kulturaren egoera? Zein gabezia ditu?

Uzkudun: Udala eta kultur taldeak lanean ari dira, esparru batzuetan batez ere erakusketak, kontzeriak... Hort oso positiboa da eta jendea hast da ohitzen kultur etxera sartzen. Hutsunea taldeetatik edo Udaletik herritarreran iristeko orduan dago. Esparru batzuk ere falta dira lantzeko: antzerkigintza...

Leunda: Antzerki tailerra martxan dago eta asmoa da ekainaren 5ean taldea herriaren aurrean azaltzea.

Olarriaga: Dena dela, Udalak badu bere esparrua kulturgintzan eta horretan jardun behar du. Baina oso garrantzitsua da kultur ekimenak herritik sortzea eta herriko talde horien mugimien-

KRONOLOGIA

- 94/06** Udalak kultur etxea egiteko proiektua onartu zuen.
- 94/09** Maisu-efixe zaharra bota, eta berria egiteko obrak hasi ziren.
- 96/10** Udalak kultur teknikari bat kontratatzeko deialdia egin zuen.
- 96/11** Kultur etxearen inaugurazio ofiziala egin zen. Aita Lertxundiren omenezko ekitaldien barruan.
- 98/01** Urtehete baino gehiago luzatu zen prozesuaren ondoren, hutsik geratu zen kultur teknikaria hartzeko deialdia.
- 98/04** Udalak kultur teknikaria hartzeko deialdi berria aztertzen ari da.

dua bultzatzea.

Leunda: Niri eskarmentuak erakusti dit gottik-behera sortzen diren proposamen asko erantzunak gabe geratzen dira: irratia taifuren protektua, adibidez.

Kultur etxea, edifizioa, badugu. Orain edukiz, ekitaldi eta dinamikaz, betar da.


Uzkudun: Orokorean kultur etxeak bi funtzio izan behar ditu: kultura emari eta kultura hartu. Produzitzale (kastaroak, tailerrak...) izan behar du, baina baita erakus-tale ere, zerbitzuak ere eskaini behar ditu. Oso ideia ona da bideo zerbitzuaren eta, agian, etorkizunean informatika gelabat edo fonoteka ere jar datetze kultur etxeen.

Olariaga: Kultur etxea horretarako prestatua dago, egin zen garaian horretan pentsatu genuen.

Uzkudun: Jende bat, adibidez, interesatua dago gela edo toki insonorizatu bat lortzeko, beren gitarrarekin-eta jarduteko, kultura produzitzeko. Kultura produzitu egin behar da eta horretarako azpiegiturak behar dira.

Olariaga: Kultur etxeari buruzko bilerak egiten genituenean oso garbi geneukan kultur etxeak eman eta hartu egin behar duela. Alegia, kultur taldeetako eta taldeetatik kampaña dagoen jendeak egin behar du hona etorri eta planteamenduak egin. Udalak egindo du bere programa, baina herriak egin behar du berea. Udalak bere zatia bete dezala eta gainontzeko zatia jendeak bete behar du. Zer antolatuko dugu? Denborak esango du zehn premia dauden.

Leunda: Eskarmentuak erakusti dit udaletxean gau-denok sentiberak izan behar dugula, datozen proposamenak entzuteko. Horri oso garantzitsua da. Herritarrek proposamenak egingo dituzte eta Udalak, ahal duen neurriam, azpiegiturak jarriko ditu eta lagundu eta bultzatu egin-



JOSE MIGUEL LEUNDA:

«Udalean sentiberak izan behar dugu datozen proposamenak, entzuteko. Udalak, ahal duen neurrian, azpiegiturak jarriko ditu»

go du. Askotan, ekimenak herrikiz etorri behar du.

Iruditzentziaz herriarrek badakitea kultur etxeak zer eskauntzen duen! Herritarrek ezagutzen al dute kultur etxeak!

Olariaga: Gogorik ez due-nak ez daki. Udalak egiten du nahiko propaganda bere ekitaldiak antolatzen dituenean eta interesa duenak badaki kultur etxeen zer egiten den. Orokorean, interes falta handia ikusten dut.

Uzkudun: Kulturan orokorean gabezia bat ikusten dut. Kultura ez da saltzen edo ez du interesik. Hemen garatu behar dena da herriko kultura, norberaren kultura, etxekoia. Badago sektore bat, bidaude taldeak bakoitzera bere lanean, baina orokorrean... Esate baterako, arrantzaren kultura ez da transmititu belaunaldien artean. Mendebal-

deko kultura gure benetako kultura ordezkatzen ari da.

Leunda: Kultur etxeari buruzko informazioa kalera-tzen da, baina jende askok beldur edo errespetu handia dio parte hartzeari eta atzera egiten du. Hala ere, pixkanaka beldur hori galtzen ari da.

Olariaga: Nik zakantzan jar-tzen ditum beldur kontu horiek. Jendea hasi egiten da, baina ez da mantentzen. Urteak joan ahala utzi egiten du askotan. Hasieran, berritasean, jende asko ausartzen da. Gero, jendeak erantzukizunak hartu behar dituenean eta parte hartu behar due-nean, atzera egiten du.

Hala ere, nahiz eta ekitaldiak jende gutxiak parte hartu, antolatu egin behar dira. Jartzen ez badira, inor ez da joango; antolatzugero, berriz, hasieran sei lagun joango dira, gero zortzi, gero hamar...

Uzkudun: Sinistu egin be-

har dugu egiten dugunean, bestela alferrik da. Jendearen pasibotasuna handia da, baina ez da Orioko kasuta bakantrik.

Leunda: Orion gauzak egiten ari dira, eta uste dut jendea pixkanaka animatzen ari dela.

Olariaga: Herriaren parte-hartzea falta da.

Badirudi orokorean gustora zaudekela kultur etxearekin, baina zein hutsune ditu?

Uzkudun: Batzuek esango dute taberna bat falta zaiola. [barrez]

Leunda: Nik hasiera batean tokia aipatuko nuke. Horruga bat dago. Musika esko-laudeketik hona ekarriz nahi genuen, baina leku faltagatsik proposamen hori kampaña geratu da. Horri bezala beste gauza asko. Dantza taldea taillerretako hortan eta Salatxo goiko eskoletan dabilta kul-

KULTUR ETXEA

hizpide

tur etxean lekurik ez dagoelako.

Uzkudun: Nik behar edo hutsune bat ikusten baldin badut, kultur teknikariarena da. Kultur teknikariak herriaren kultur premiak aztertzen eta asetzan saiatu behar du.

Leunda: Zalantzak ez dago kultur teknikariak beste martxa bat emango diola kultur etxeari.

Kultur teknikaria aipatu duzuenez, goazen gai

Jorratzera. Beharrezko alda kultur teknikaria!

Olariaga: Eskarmenduak erakutsi dit Kultura zinegotziak eta batzorde buruak bordonate handia badu, gauzak egiten dituela. Baino, jakina, zinegotziak arduratu behar du ekitaldiak antolatu eta taldeekin hitz egiteaz, eta hori lan handia da. Gainera, zinegotzi gehienek beren lana eta erantzukizuna izaten dute udaletxetik kaino. Norbait behar da Udaleko kultur programa landu eta aurrera ateratzeko, Kultur teknikariak herriko premiak ikusi eta programa bat egin beharko luke, taldeekin bildu (ez taldeetan agindu zer egin behar duten), ekitaldiak

koordinatu...

Bere funtziola izango litza-teke udaletxean tekniko lana egitea, kultur etxea koordinatu eta kontrolatzea eta herriko taldekin harremannak izatea. Zerbait nahi duenak teknika-riaren gara jo beharko luke. Hark proposamenak jaso eta udaletxera eramango lituzke, gero denak bildu eta eztabaidatzeko.

Uzkudun: Kultur teknikariaren bitartekari lana oso garrantzitsua da. Hasteko, egin beharko luke analisi sakon bat, herrian kultura-rekin zer egiri nahi den finkatze-ko. Udalarekin eta herriko taldekin hitz egin eta ondoren ekintzak antolatu.

Leunda: Azken linea lan profesionala da eta kultur dinamizatzailearekin hobeto moldatuko gara. Gu ez gande prestatuak lan hortegiteko, ex-dugu experientziarik eta nolahaia jarduten gara. Askotan, gainera, laneko orduak galten ditugu. Kultura sallak bere martxa hartu du, baina kultur dinamizatzaile batekin eta programa batekin, kanpoan egiten dutenaz informazioa jasoz eta ikusiz, urrutia iritsiko gara.

Uzkudun: Kontua da kultur teknikari egokia aurkitu behar dela. Zer eskatu behar zaio? Horikusten du nik zaltasuna pertsona egokia aurkitze-ko. Ian profesionala egingo duena. Ez dugu behar paperen artean zortzi ordu egingo dituen funtzionarioa.

Olariaga: Jaldima, pertsona lanean hasten denean ezagutzen da, ez azterketetan.

Teknikaria hautatzeko aurreko saloa hutsik geratu zen. Zertan da berria!

Leunda: Orain hasiko dugu. Aurreko esperientzia ikusita oinarriak aldatsu ditugu. Oraingcon gai gutxiago eskatuko dira eta gaiak zentratuagoak eta oreaktua goea daude. Aurrekoan prozesua asko luzatu zen eta jende askok kale egin zuen, ez zen azaldu frogetara.

Olariaga: Beharbada gehi-xtxo eskatu zelako.

Uzkudun: Kultur teknikariari zerbatz eskatzean. Orioko kultura ezagutzea esku behar zaio.

Leunda: Aurreko saloen pertsona bakarra iritsi zen azken frogara eta galdu zitzaion ea ezagutzen zuen Orioko kulturaren errealitatea, eta ezagutza horretan oinarrituta ea herak zein programazio egingo zukeen. Froga hori ez zuen pasa.

Uzkudun: Azterketa gehiegiz egiten dira eta behar dena gutxiagorik eskatzen da. Dinamizatzaileak egon behar du sensibilizatua eta motibatua. Hala ez badago, edo funtzionario-mentalitatearekin bada-

ITZIAR OLARIAGA:

«Askotan egiten dugun lehen galdera izaten da ekitaldi bat zeinek antolatu duen, eta hori oso tristea da. Galdetu behar dugu zer antolatu den, ez zeinek. Gizarteko esparru guztietan gertatzen da»



tor, alferrik da. Hori nola lortu da koxka.

Aukeran, kultur dinamizatzalea oriotarra ala kanpotarra nahiago duzue!

Olariaga: Berez, legeak debekatu egiten du herriko izaera derrigortzea.

Leunda: Dena den, pensatzeako da oriotar batek hobeto ezagutuko duela herriko errealityea eta hobeto egingo duela azken frogia.

Uzkudun: Nik exijituiko nioke ez izatea bulego gizon bat, egun guztia txostenak egiten pasatzen duten horretakoak. Kultur teknikari batek aktiboa izan behar du, taldeengana joan, dituzten beharrak aztertu, mugitu.

Olariaga: Kultur teknikariarentzat oso garantitztsua da zein dagoen Udalean Kultura batzordeko buru, elkarrekin lan egin behar baitute.

Uzkudun: Kultur teknikaria zenbat denboran egingo da frogan?

Leunda: Sei hilabete.

Uzkudun: Denbora hori pasa ostean ondo aztertu beharko da epe horretan egin duen lana: taldeekin hitz egin... Denbora horretan azalduko du, azken finean, balio duen ala ez.

Olariaga: Oso garantitztsua da pertsona dinamikoa eta irekia izatea.

Somatu al duxue aldaketarik herriko kultur giroan azken hamar urteetan!

Olariaga: Gauza batzuetan dezerente egin da; musika escola, kontzertuak, abesbatza, Ostargi... Lehen baino gauza gehiago daude, baina ez daude hezeta kulturaren esparru guziak.

Leunda: Kulturaren baratza zabala da, baina urtetik urtera esparruak irabazten arri gara.

Uzkudun: Nire haurtzaroarekin konparatz, kultura instituzionala, Udalaren eta taldeen partehartzea handitu egin dira. Talde gehiago sortu dira. Jakina, gora egin dugu, baina etxeko kultura galdu da.



RIKARDO UZKUDUN:

«Kultur teknikariak sensibilizatua eta motibatua egon behar du. Hala ez badago edo funtzionario mentalitatearekin badator, alferrik da. Zerbait eskatzekotan, Orioko kultura ezagutzea esku behar zaio»

Etxean askoz ere gehiago jasotzen genuen gaur egun baino. Heziketan dago koxka.

Leunda: Ez dago zalentzari gauza asko diagocela egiteko, horregatik kontratatu nahi dugu kultur dinamizatzalea, herriko kultur mugimenduari beste bultzada bat emateko.

Uzkudun: Ni kezkatzen nau heziketa akademikoa gero eta zabalagoa eta sakontuagoa dela, baina bizitzako beste esparru batzuel garrantzia gutxiago ematen zaie. Lehen, adibidez, gehiago jolasten genuen.

Olariaga: Garapenak bere prezios du.

Uzkudun: Ehun urteria jauntar baten, sultzar baten eta nire artean ez da hainbesteko ezberdinotasunik egongo.

Leunda: Gure helburuetako bat hort da: garapenari ordaindu behardio gun prezios

gutxitzea. Kultura arloan egin behar dugu etxetik atera eta ireki, jendea ezagutu eta jendearekin ibili.

'Sareak chuten' topaketetan salatu zen herritarren eta taldeen artean etiketen bidez funtzionatzen dela askotan. Horrek ez al du oztopatzentz herriko kultur giroa aberastea! Guzion artean gauzak antolatzea!

Olariaga: Hori aspalditik gertatzen da eta denok ixten joan gara gero eta gehiago. Bakoitzan bere gunean geratuta. Askotan egiten dugun lehen gaidera izaten da zeinek antolatu duen ekitaldi bat, eta hori oso tristea da. Galdetu behar dugu zer antolatu den, ez zeinek. Hori gertatzen da gizarteko esparru guztietan.

Uzkudun: Hori gainditu

egin behar da.

Leunda: Herri txikiek duten gauza txarretako bat hort da.

Olariaga: Udaletxeen lan egindako kanpotarrek komentatu izan dute Orion presio soziala beldurgarria dela, oso leku gutxitian bezala.

Egoera gaitzetsko lehenengo norberak hasti behar du besteari irikitzen, mesfidantzak baxtertuta, nahiz eta batzuetan zaila izan. Gainera, eragina du egunereko bizitzaren arlo eta ordu guztietan.

Uzkudun: Hori konpontzeko 'Sareak chuten'-en tankearako topaketak behar dira. Belaunaldiaren artean oso giro interesgarria sortu zen, mesfidantzak gaitditzuta. Bilguneak lortu dira belaunaldi eta pentsakera ideologiko ezberdinenzat.

EUSKALDUN

berriak



Juan Rekarte

Juan Rekarte Caracasen (Venezuela) jado zen 1941ean. Gurasoak bizkaitarrak ziren, gerra garaiun hara ihesi joandakoak.

Aita Bermeokoa zen, baina ez zekien euskaraz ondo hitz egiten. Medikua zen lanbidez, eta esaten omen zuen euskeraz de médico egiten zuela berak: hau da: gaboezin arizela, hortu ornauso, oñan besoa eta horrelakoak esaten hazekiela. Ama, berriz, Bilbokoza zen, eta euskaldunberria.

Etxeko girona, hala ere, oso euskaltzalea omen zen, nahiz eta harreman normaleko rako erdara erabili. Etxean beti izan ziren euskarazko liburuak eta gramatikak, eta, hortaz, euskara ez zen inolaz arrotza izan rekartetarrienean.

Batzillerreko ikasketak Gasteizen egin zituen Juanek, eta, geroztik, Euskal Herriko kampo bizi izan da urte askotan: batez ere Ingalaterran, baina, baita Venezuelan eta Estatu Batuetan ere. Ingalaterran ezaugu zuen gaur emazte duena: Pat Cowie izeneko eskoziarra.

Orain dela 11 urte etorri ziren Euskal Herriko bizitzera; hasieran Hondarribira (bi urte), eta, ondoren, Aiara. Etorri aurreko erabaldi omen zuten euskara ikastea, eta hori Hondarribian egin zuten. Juanentzat ez omen zen zaillegia izan, ordurako gramatika asko zekielako, eta Patek ere nahiko erraz ikasi omen zuen. *lingüile porrokatua delako*. Juanek dioenez, euskara erraza da ikasteko, salbuespenik ez dute lako apena, eta oso ondo estrukturatua dagoelako.

Juan eta Paten etxeko hizkuntz egoera ez da, ez, oso ohikoa gurean: senar-emazteek ingelesez egiten dute beren artean eta Manex eta Ioma seme-alabekin. Manexek eta Iomak, berriz, Venezuelan jacoak diren arren, euskaraz egiten dute beren artean, eta ingelesa erabilten dute gurasoekin.

Euskadiko Orkestra Benito Lertxundi Elkarekin

Enrike Ugarteren zuzendaritzapean
Tolosan Apirilaren 17an,
Ostirala iluntzeko 8etan. Leidor Zinemak

MUSIKA KRITIKA

Benito Lertxundi eta Orkestra Sinfonikoa

Apirilaren hamazapta zen, arratseko zortziak. Bi aldiz handiagoa izanda ere beteta egongo zen Tolosako Leidor zinema jendez gainezka, 1217 eserlekuak okupatuta, lepo. Kanpoan aurtenko apirilean askotan izan dugun eguraldi euritsa eta desatsegina: barruko epeltasuncion giro aparta. Orkestrako musikartak agertokian eserita, norbere instrumentua afiatzen. Benito Lertxundi alboko kortinen atzetik begira, urduri antzean. Zortziak pasaixo, Euskadi Irratiko Jaime Otamendi agertokira igo eta isiltasuna, Kontzertuaren aurkezpena egin. Tolosaldeko ikastolen aldeko aurtenko Kilometroak antolatzen ari direnen esker ona azaldu musikariei eta bertaratutako guztiiei eta ondoren kontzertu mundiala eta ezkohikoa iragarri: Benito Lertxundi kantari, Euskadiko Orkestra Sinfonikorekin batera, Enrike Ugarte tolosarraren zuzendaritzapean.

Benito beltzez agertu zen, orkestrako musikalari profesional dotoreen antzera. Baina bere aldarria, bere umorea, bestelako kolorekoak ziren. Benito gustora zegoen, hunkituta. Kimika berezia lortu omen zuen Enrike zuzendarriarekin eta ikaragarri gustora aritu omen zen kontzertuaren aurretek egindako bi entsaioetan. Tolosakoa den orkestrako gazte batek hala esan omen zion entsaio batean: "Benito, zuk kantatu nahi duzun bezala eta guk segituko dizugu", adorezko keinu horiek asko insaitu omen zuten, eta bere esker ona azaldu zien denet.

Kontzertuak bi parte izan zituen. Lehenengoan hiru obra klasiko jo zituen orkestrak. Bigarrenean Benitoren zorizt kantu, ezagunenetakoak: *Urrundik heidi naiz*, *Txori titikia*, *Oi Zuberoa*, *Bihotz*, *Udrizken koloretan*, *Baldorbu*, *Oi lur eta Oi una Eskuinal Herria*. Bitan Olatzak ere kantatu zuen. Orkestra Sinfonikoaren kantuengokitzapena, bikaina. Benito, egoera arraroan, kitarrarik gabe, eta bere taldeki-deak gabe. Kantu bakoitzaren ondoren txalo zaparrada, besarkadak Benito eta Enrike Ugarteren artean, eta giro ezin hobea entzuleen artean.

Omenaldi bat bezalakoa izan zen, Kilometroak antolatzen dutenena eta bertaratzen euskalzale eta kantuzale guztiiena, bere jatorriari uko egin gabe, txikititasunaren aldeko apustua egin duenaren ibilbide profesional paregabea egiten ari den artista-kantari oriotarrari egindako omenaldia.

Iñaki Iturain

BALEA

Hilabete honetan ez dugu zalaniza handirik izan soziedadea erabakitzeko rakoan. Maiatza izanda, bagenekien 1901eko maiatzaren 14an balea harrapatu zutenen omenez Balea izena hartu zuen elkarera jo behar genuela.

NERE MANTEROLA

Balearen sorrera soziedadea gehienek izan dutenaren antzekoa izan zen: lagun kuadilla bat bildu, eta soziedadea sortu zuten. Hori 1980an geratu zen. Harrezkerotik, lau bider handitu dute Balea, jende aldetik, behin-behin. 1996. urtean handitu zen azkeneko, eta gurekin izan den Iñaki Sarasua presidenteak orduan sartu zen. "Gu, azkena sartu eta guncagau" esan digu, barrez. Baskide guztiek junta-tik pasa behar izaten dute; eta, behintzat, junta bakoi-zean arrantzale bat izan da dirahalegintzen dira. "Horrek negu aldean lan dexente egi-ten du, nahiz eta udan hemen ez egon".

Baleak gaur egun 124 baskide ditu. Sortu zenean, sartutakoek lanaz gain dirua ere jarri zuten. Hasiera hartan mugimendu handia izaten zen soziedadean; ondoren goek, berriro, dirua jarri behar izaten



Iñaki Sarasua, Baleako presidente, 1901eko maiatzaren 14an harrapatutako balearen ondoan.

dute. Bazkideren hantek jubilatu batzuk lehenago bere postua uzten badu, ez da inoiz dirurik bueltatzetan. Noraitiek, kanpora bizitzera doalako edo, bere lekua uzten badu, bere familiarteak bat edo lagun bat sar daiteke haren lekua haritzeko. Noraitiek utzi eta herrian geratzen bada, exin sar daiteke inor bere ordez. Horrela, baja dexente izaten deinen, eta diru eskasia dagonean, jende gehiago sartzea erabakitzentz. Gutxi gorabehera, zortzi baskide jubilatu daude Balean, eta horiek, gai-nontzko soziedadetan bezala, ez dute ez hitzik ez botorik, eta kuartarik ere ez dute ordaintzak. Bestela, beste es-

kubide guztia dituzte. Gainera, horien ordez familiarteak bat edo lagunen bat sar daiteke.

Batzordea edo junta hamabost egunetik behin biltzen da eta horako hauek osatzen dute gaur egun: Iñaki Sarasua, presidente; Julian Oliden, diruzain; Imanol Bengoechea, Joxe Mari Gaitan, Felix Lerxundi, bokal; eta Juan Jose Murgiondo, Andoni Elizalde eta Rafael Bergado, bodegazain. Batzordetik lau lagun aidatzentz dira urtero, eta bi urtez egon behar izaten du bakoitzak bere postuan.

Emakumei buruz ere egin diegu galdera. Hassieratik ja-rritako legea omen da emaku-

meak baskide ezin izan daitezkeela, eta harrezkerotik ez da inoiz berriro gai hori eztabaidatu.

Balearen eguna tokatzen den astean, aste kulturala antolatu izan dute: arrantzari buruzko hitzaldiak, kulturari buruzkoak, diapositibak eta abar, baina beti bildu izan da jende gutxi. Horrela, haurrei zuzendutako gauza gehienek arrakasta izaten zutela ikusita, haurrei eta zaharrei zuzendutako ekintzak antolatzentz. Aurtengoari buruz galduen diegu, baina ez dute argibiderik eman nahi izan, oraindik gauzak zehazteko baitituzte. Beraz, zai egon beharko dugu.

**OLIDEN
HARATEGIA**

EUSKO GUDARI, 2
TFNOA 83 10 86

Pintura
orokorrean eta
enpapelatze
lanak egiten
ditugu

Inaxio Andres
ORIZU, SL
Iturbide 12, 4. C
83 20 69
909 40 58 98

830089.
OPITZ
Horma zabaleko oinetakoak
Gizon eta emakumeen zat



Apirilaren 27an, igandearekin, Pedro Arregiren errautsak zabaldu ziren Kukuarri inguruan. Momentu hunkigarri hartako argazkia duzu oñdokoak. Bido batez, surreko KARKARAn egindako okerra zuzendu nahi dugu; izan ere, spirileko alean ez genuen aipatu Pedroren izena hildakoentzat.

Zuen seme-alaba jaiberraren argazkia —edo ozkontzakoa— txoko honetan argitaratzea nahi baduzue, bialduiguzue eta jarriko dugu. KARKARAREN buzoian utz dezakezue edo, bestela, taldekoaren bateman. Bat baino gohiago iristen bazaigu, lehenbizitza allegatu zaigunak izango du lehentasunsa.

JAIOTAKOAK • HILDAKOAK • EZKONDUTAKOAK

ORION

Jaio

Nora Rodriguez Agote, apirilaren 3an.
Nahia Agudo Etxeberna, apirilaren 5ean.
Aitor Llorente Lopez-Mora, apirilaren 15ean.
Inazio Ibarrañendi Lazarraga, apirilaren 22an.

Hil

Pello Arregi Agirre, marxoaren 12an, 41 urte.
Jose Perla Gozategi, apirilaren 15ean, 89 urte.
Valentin Solaberría Mendizábal, 19an, 88 urte.

Ezkondu

Ez da izan.

AIAN

Jaio

Uxoa Orbegozo Lertxundi, apirilaren 4an.

Hil

Xabier Albiar Lizaso, apirilaren 19an, 20 urte.

Ezkondu

Ez da izan.

Okera zuzenduz: Jürgen Etxeberria zen marxoaren 27an jaiotako haumaren izena, eta ez Jurdan, guk spirileko alean jarri genuen bezala.

zorionak

Salatxo abesbatzari

Emanaldi ederra antolatu zuten Salatxo abesbatzakoek apirilaren 26an; bost abesbatza kalez kale kantari ibili ziren goizean, eta anatsaldean, berriz, kontzertua eskaini zuten frontoian.

Eguraldi hotz eta bustiak ez zuen batere lagundu, baina, hala ere, zorionak eman nahi dizkiegu ekimeneragatik, ez baita makala horrenibeste jende biltzea kantuaren inguruan.

Ea datomen urtean eguzkipean ospatzet den!

zoriotxarrak

Amenazugile anonimoei

Apirilaren 16tik 17ra bitarteko gauean baten batek amenazuak idatzi zizkion alkateari etxeeko atarian, 'Argi ibili' jam zioten pintatuta, diana batén ondoan. Hon gutxi balitz, hildako ahate bat ere jarri zioten ate ondoan.

Amenazuen egileek gizatasun falta erabatekoa erakutsi dute, eta gertaera triste horrek gure zoriotxarrak baizik ez ditu merezi.

Orain dela...

25 urte

1973ko apirilean, aurten bezalaxe, Iruntxiberri alarra izan zen albiste. Azpeitiko zezen plazan korraka-apustua egin baitzuen Errazkingo Arginaren eta Aruizeko Barberia bikotearen aurka. Iruntxiberrak hirurogei buelta eman behar izan zizkion zezen plazari (hamabost kilometro). Bikotea, berriz, 600 metroro txandakatu egiten zen. Bakotzak, beraz, sei kilometro egin zituen. Hasieran apustuak Iruntxiberraren alde zeuden ehun berrogeira, baina lasterketaen erditik aurrera aldatu egin ziren Arginaren-Barberia bikotearen alde. Azkenean, hauek nagusitu ziren, gutxitatik izan baten ere. Arginaren-Barberia bikotearen denbora 39' 34"koa izan zen, eta Iruntxiberrirena, berriz, 40' 15"koa. Irabazleek ehun mila pezeta eskuratu zitzuten.

Korrika apustuen gaiarekin jarraituz, orain dela hogeita bost urteko egunkariari gogorarazten zuten

76 urte lehenago izandako ezbeharra Zarautz-Aia lasterketa batean. Zarauzko Etxenagusia eta Belgikako De Nys ziren korrikalariak. Zarauztarra ia lau minutu lehenago atera zen, eta helmugatik kilometro eta erdira zegoela lurrera erori zen konorterik gabe. Bi egunen buruan hil egin zen. Dirudienez, egun hartako izugarrizko beroak eragin handia izan zuen horretan.

Orain dela 25 urte, ordea, aurtenko Aste Santuan bezala, oso eguraldi txarra egin zuen. Apirilaren 10ean Kataluniaren iparraldean izugarrizko elur pila egin zuen (1.80m.), eta hemen 48 ordutan tenperaturak hogeitako gradu egin zuen behera.

Bestalde, Aiako eskolak hogeita bost urte bete ditu apirilaren 12an, egun horretan inauguratu baitzen lau eta hamar urte bitarteko 85 haurrentzat. Hainbat irakasteko hiru irakasle hasi ziren lanean.

GURE TXOKO TABERNA

ARITZAGA KALEA



ORTZAIIKA JATETXEA

- * Bataioak
- * Despedidak
- * Jaunartzek
- * Ezkontzak

Tfnoa: 83 32 51 / 83 30 46 Ortzaika

GOIZZEKO

- KAFETEGIA
- IZOZKIAK
- CROISSANDEGIA

pasteriako
enkarguak
hartzen ditugu

Aita Lerkundi, 33
Telefona: 83 28 55

MAKAZAGA Igeltsuritza

- ✓ Igeltsuritza orokorra, denetarik egiten dugu
- ✓ Presupuestoak eskatu konpromezurik gabe

Lan txukuna eta
merkea

DORRONSORO JANARIDENDA

Abeslari, 3 ☎ 83 09 37

URBAZTER ASEGURUAK

AHOLKULARITZA
San Nikolas kalea, 6
Tel.-Fax: 13 33 14

☎ 83 59 00

BEA

Eduardo Galeanoren iburu batean irakurri zuen aspalditik antropologoek dijineten. Paleoistoko gizakiek astean hogni bat ordi batzik ez zuten emanen lan produktiboa (ehuzan, jateko fruituak bitzen eta abar).

Bisoa da, baina orain konturatzen nazi datu hon dela iburuz gogoan geratu zaidan bakarra harregina da alperron oreinaren selektiboa!

Burua pixia bat behartuta (gubé, gehieg ere ez da komuni eta) gogora datorke, baita ere nire ordoku burutazioa. Deda' ez dugu, boda, aurrezbede kuxin egin. Iragunak zeukanik niki, ordi estro eta guztia: 50 orduak garaiko lan asteak egiten dituteneak, omontzaleek eta kontzatu gabe. Etaguz edonolako hondok egin ditugula sinistrala!

Gureguin ere, ez nuke esango askoz hobeto gabitzanak. Gaste guzak lortzen du baina, baina lortzen duten gubix honek inordu gehiago egiten dute batezbeste (ordu estrak dirria eta), eta urte batzuk baino.

Orain —bizuzten garai— lan orduak gubitzeko eskaria plazantza dute sindikatuak, eta nik pozk jaso out abestea. Bi motibogatik: lanpostu gehiago sortzen lagun dezakeelako, eta —berez eta besterik gabe— lan gubikoago egiten ikaragarri idea oia inuditzen zaialdako.

Eskatzen hasta, ordea, motz geratu dira langileen ordezkarisk. Esperanza handiak dauka niki jarrita la euskal sindikatu magusen arteko elkarren oporako baina, kontu horietan epel esku eta uzkurari dira. Langileek gehiago ruhi dugu, hau da, gubixago... langutxiago, alegia. Proposamen ausartago egin behar zuten. Era euskal herrikoasuna kontuan hartuta, proposamen honi bakarra izan ibili BEA (Benetako Euskal Astea); hau da, **etxe-lehenakintza, etxe-arteak** konsegia eta **etxe-azkenak** erkin bukatzeo den lan astea. Horri hor Euskal Herriko langileak, gure ebetik hasta, gustura bere egin go lukeen aldarrapenak!

Jabier Zabaleta

KANPOAN

daudenak



Mertxe Manterola Telleria

Hogei hirabost urteko gaztea danaren, badira hirabost urte Mertxe Italian bizi dela. Hemezorbi urte ztuela gaste italiar bat ezagutu zuen lan egiten zuen Zarauzko Pro-tuberman, eta berarenkin hasi zen harremanetan. Bi urtetan hara eta hona ibili ondoren, hogei urte-rekin Italiana ezkondu zen. Novara hiria.

Italian joan zenerako Psikologiko lehen kursoa egnazuen Zornagain eta, han, Milanean. Skomotizadorea ikasi zuen basketak bukatuta, ezinduekin lati egin zuen sei urtez, eta haurrentz geratu zenean exekutibako lan egiteari utzi zori haurrentz geratu zaitzeke.

Orain, senar-ermazteek eta bi semeak (bezi urteko Matias eta bi urteko Mike), Oleggio herriari tiz dira. Milanetik 50 kilometrora, baina datorren hilabetean herrikiz pertudagoen baserri batera joanago dira berizera, beste bikote batzuen batera. Orduram, bere ahizparenetik bostetun metrora biasko diktatza gazztene, Ane Maite, hiri berri baita hango batekin ezkondu.

Iralean, Mertxek berriz ere lanean hasteko aismoa du, eta joxan zenean baino

"Semiegi euskeraz egiten diet. Zaharenak, orain, batez ere italieraz hitz egiten du, baina ondo ulertzen du euskeraz".

zaligoa izan arren, oraindik ere Italiako iparraldean Euskal Herriko baino errezagorri da lana aurkitzea.

Kanpoan ditzearik, beste jendetza bizerdunek ezagutzeak. Kuspegia zabolako emakumea da, euskaraztik munduaren ziborroa ez garela ahortzazi ditu dio Mertxeek. Ni eza jasturaz naga Italiako baino Irlaungoan zorrik hango ibendi tonimurak eitza osatzen dituztela. Baina herria lautada batean dago, nahiz eta menda oso geru izan.

Euskal Herriko orain dela urte batzuk baino gutxiago elortzen da, haurrentzat bidaia astuna delako. Azken urte hauentan, etorri denean, aldatuta ikusi da herriengo bizerduna. Lehen alde handiak zeuden herriengo eta Italiako bizerdun artean, baina orain telebista dela eta, denia berdinetsuago ikusten du jazkera, mairuei ematen zaien garrantzia, zerbitzaitzera eta abar. Horri bere ustza poena da, nahiz eta joxin horri ihes egitea zaila dela.

Kanpotik ikusten, Euskal Herriko "poliborria" inuditzen zaio eta, elortzen denean, osor egocera nahasa ikusten du.

Egin eazu zure publizitatea

KarKara

aldizkarian

83 15 27

UEMA

*Udalerrri euskaldunen
Mankomunitatea*

96ko urtarrilean zuzenean egin zitzaien udalari UEMAn sartzeako eskaera; ordainetan ezer jaso ez zenez, puntu orokor batzuk betetzea eskatu genuen. Hala ere, berriz zuzenduko gatzalikoa gure proposamenarekin, beste zenbait talderen laguntzaz.

ORIOKO EHE

UEMA. Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea, udal euskaldunetan herritarrek egiten duten bizitza sozial guztia, publikoa zein pribatua, euskaraz izan daitezen bideak urtatzeko sortutako elkartea bat da; eta, horrez gain, helburutzat du euskara nagusi izango den lurgumea osatzea.

Honezkero konturatuko zinaten, horretarako gure herriak eta ingurukoak aukera paregabea eskaintzen dutela.

Guk, Orioko hitzkuntz egoeraren azterketa egin ostean ateratako ondorioen arabera, egokitzat jo gensem udalari. UEMA bezalako elkartek eskatzen duen kompromezua hartzena bultzatza; izan ere, bi ilo dira kontuan hartu beharrekoak: bata Udalak herriari edo herritarri eskaintzen dion hitzkuntza eta horren erabilera bermatzeko balibideak aktibatzea, eta bestea barne funtzionamenduan erabiltzen den hitzkuntza.

Lehenengoari dagokionez, aurrerapauso nabarmenak eman dira azken zorizi urte honetan, bat udaleko agenteen eskutik bideratua, baita herritarren parte hartzenarekin ere.

ematea ezinbestekoa iruditzen zaigu, egin beharreko planaren jarraipena ziurtatuko baluke.

Orion, Euskal Herrian Euskal Karaz taldea birsotzerakoan, hau da, 1995eko irailean, beste gai batzuekin batera helburutzat Orio UEMAn sartzea markatu genuen, horrek duen garrantziagatik, ikastola, escola, Karkara eta bat egin duten herriko beste zenbait elkarrenea eta erakunderen atxikimenduarekin, Udalari eskaera egingo diogu berriro.

tzeko eskaera egin genion eta ez zuen inongo fruiturik izan.

Gala berriro aztertu ondoren, zenbait puntu eskatzeari ekin genion, hitzkuntz normalizazioari begira, eta orokerrean onartua izan zen. Hala eta guztiz ere, UEMAn sartzeak duen garrantziagatik, ikastola, escola, Karkara eta bat egin duten herriko beste zenbait elkarrenea eta erakunderen atxikimenduarekin, Udalari eskaera egingo diogu berriro.



Orioko
balintza
guztiak
betetzen ditu
UEMAko
partaide
izateko.



EZETZ EZAGUTU! lehiaketa

Argazki zahar hau 1958. urte inguruan ateratakoa da. Bertan mutil gazte kuartilla bat azaltzen da, kantu saioa egin ondoren lehengo zine zaharrean.

Lehiaketarako **argazkiko bost lagunen izen-abizenak** asmatu behar dituzue.

Bigarren gildera: **Noiz bota zuten Maisu etxe zaharra?**

Asmatzaileen artean **liburu edo diskoroen** bat zozketatuko dugu.

Erantzunak **maitzaren 28rako** bidali behar diziguzue, hebi de honetara:

KARKARA aldizkaria Ezetz ezagutu! lehiaketa, Hemko plaza, 1 (Udaletxe atzeko karkara)

Aurreko irabazlea Iñaki Makazaga onotarra izan da.

Hau da eman zigun erantzuna: Jose Alipurua, Martin Urrutibizkia, Ignacio Peña, Juan Peña eta Martzelino Peña.

Bigarren gildetako erantzuna hau zen: Gatzaineko balestia eta hantzezko puntelkin.

Egin ezazu zure publizitatea

KarKara

83 15 27

aldizkarian

MAIATZEKO AGENDA

ORION

Erakusketa

KULTUR ETXEAN

maiatzaren 11tik 14ra
Ikastola antolatutako erakusketa

maiatzaren 25etik 29ra
Mendik orgiakien erakusketa,
Talai Mendik antolatuta

SALATXON

maiatzaren 27tik apirilaren 24ra
Vicente Firaren Indiako emanetako

Bestelakoak

maiatzaren 24an
Alcohólik gabeko diskoteka
Diliskaten eskutik

maiatzaren 1an
Iparaldeko eguna EHEk antolatutako beste talde
batzuen loguntzoz. Egun guzian zehar ekintzak
egongo dira Urruñan Ikastola bat irekitzeko
dirua ateratzeko

KULTUR ETXEAN

maiatzaren 9an
Makinba antzerkia 20:00etan;
antzerki taldearen esku

maiatzaren 25an
Diaporama emanaldia: K2-Balibar Roman
Agirre eta Harkaitz Canok zuzendua:
19:30etan Talai Mendiran esku

Hitzaldiak

KULTUR ETXEAN

maiatzaren 21an
Talai Mendik antolatutako parke osoikoen buruz;
19:30etan

Zinea

KULTUR ETXEAN

maiatzaren 2an
Bideo emanaldia Dilistok-Arkupe; 16:30etan

maiatzaren 7an

Zineforum: izandatu gabeko filma; 21:00etan

maiatzaren 21ean

Zineforum: izandatu gabeko filma; 21:00etan

Kontzertuak

KULTUR ETXEAN

maiatzaren 13, 27, 28, 29 eta 30ean
Musika emanaldia, Musika-eskolaren esku, lehenengo 19:00etan hurrengo hiru egunetan
18:00etan eta azken egunean 12:00etan

SALATXON

maiatzaren 1an
Arakoiun, Zarauzko taldea, 23:00tan

maiatzoaren 8an
Johnny Ram Live; 23:00tan

AIAN

Emanaldiak

FRONTOIAN

maiatzaren 24an
Hamil dantza taldea;
18:00etan

Irteerak

maiatzaren 24an
Pagoetako parkera; 9:30 urdinetako plazan

Agorregi

asteazken, astirro eta igandetan
Burdinola markian jarriko da egun horietan
10:00etotik 14:00etara. Sarriera doan,

